

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2021eko uztaila / 318. zenbakia

www.oñati.eus  



ONARO

Oñatiko telekomunikazio
operadorea sortu du Udalak



© Goiena

ONARO

Oñatiko telekomunikazio operadorea sortu du Udalak, zerbitzu integrala emateko: Internet konexioa eta telefonia mugikorra nahiz finkoa

INTERNET BANDA ZABALA HERRITAR GUZTIEN ESKURA JARTZEA DA HELBURUA

Internet banda zabala herritar guztien eskura jartzeko helburuarekin ONARO izeneko telekomunikazio operadorea sortu du Udalak. Gaur egun oinarrizko zerbitzua bilakatu da Interneteko konexioa (Nazio Batuen Erakundeak ere giza eskubide gisa aitortu zuen 2011. urtean), baina Oñatin eraikin asko daude oraindik (batez ere landa auzoetan, eta baita herrigunean ere) ko-

nexio duin bat ez dutenak. Pandemia garaian ere argi ikusi dugu zein garrantzitsua den Interneteko konexio ona edukitzea, eta agerian geratu dira hainbat herritarrek dituzten gabeziak.

Beraz, hori guztiori kontuan hartuz, eta ikusirik operadore handiek ez dutela erantzunik edo irtenbiderik eskaintzen, telekomunikazio operadore propioa sortzea erabaki du

udalak, "herritarren beharrei herritik bertatik erantzuteko, arreta zuzena, gertukoa eta amarru edo engainurik gabeta eskaintzeko. Sinetsita gaudelako oinarrizko zerbitzuak hobeto kudeatzen direla herritik bertatik", adierazi dute Onaro-ren sortzaileek.

Gogoratu, udalak urteetako esperientzia daukala argindarraren kudeaketan (sortzen, banatzen eta merkaturatzen)

eta orain Interneteko sarbidea kudeatzen hastea erabaki du.

LANDA GUNEETAN

Oñatiko landa guneetan 210 eraikin daude gaur egun Interneteko konexio azkarrik ez dutenak, eta horietara banda zabala eramateko supernodo bana instalatu du udalak Belarren eta kanposantuan. Horri esker, 30Mb-eko konexioa (igoera eta jaitsierako

OINARRIZKO ZERBITZUA

» Oinarrizko zerbitzuak herritik bertatik hobeto kudeatzen direla sinetsita gaude, eta Interneteko konexioa oinarrizko zerbitzu bihurtu da egun

ZERBITZU BOKAZIOA

» Zerbitzu ona ematea izango da ONAROn helburu nagusia; arreta zuzena, gertukoa eta engainurik gabea eskainiko du, eta herritarrek fakturan aurrezteko aukera izango dute

abiadura) bermatuko du irrati-lotura bidez. (Ikusi prezioa ondoko orrian)

Oraingoan, landa guneeetako eraikinen %85era iritsiko da seinalea, baina urratsak ematen jarritzeko asmoa adierazi du udalak; "etorkizunean zuntz bidez konektatzera iritsi nahi genuke".

ZUNTZ OPTIKO SIMETRIKOA

Herrigunean zuntz bidezko konexioa eskainiko du Onarok. Zuntz optiko simetrikoa izango da, hau da, abiadura bera eskaintzen duena bai igoeran eta bai jaitsieran, ►

INTERNET LANDA-EREMUAN

Landa eremuan eta zuntza iristen ez den eraikinetan **banda zabala** bermatuko da. **Irrati bidezko** konexioa izango da.

30Mb / 30Mb
BANDA ZABALA
Irrati-lotura bidez

25€/hilean

Finkoarekin **3€** gehiago



► Seinalea jasotzeko beharrezko antena eta routera lagapenean dohainik utziko ditu udalak. Instalazioa norberaren kontura izango da.

INTERNET HERRIGUNEAN

Zuntz simetrikoa. Etxeraino iristen den benetako zuntza. Jaitsiera eta igoera abiadura bermatzen duen FTTH teknologia erabilia.

100Mb / 100Mb
ZUNTZ SIMETRIKOA

29,99€/hilean

Telefono funkoa barne.
Alta ematea, **50€**

600Mb / 600Mb
ZUNTZ SIMETRIKOA

44,99€/hilean

Telefono funkoa barne.
Alta ematea, **50€**

► Erabilera arrunt baterako nahikoa izaten da 100 Mb-eko konexioa, eta hori aukeratzea gomendatzen du Onarok. Behar baino abiadura handiagoa kontratatuz gero, energia-gastua eta, ondorioz, karbono-aztarna handitu egiten baita

TELEFONIA MUGIKORRA

Gainontzeko operadoreen estaldura berdinarekin.

2 GB
150 MINUTU

6,90€/hilean

9 GB
DEI MUGAGABEAK

9,90€/hilean

DATURIK GABE
DEI MUGAGABEAK

7,90€/hilean

3 GB
200 MINUTU

7,90€/hilean

* Eskaintza gehiago <https://onaro.eus> webgunean ikusgai

INFORMAZIOA ETA ZUZENeko ARRETA



► ONAROn zerbitzuak kontratatu nahi baditugu edo informazio pertsonalizatua eskatu, **Bidebarrieta kaleko 24** zenbakiko bulegora (Oñargi-ren bulegoa) jo dezakegu 9:00-14:00 (943718010 / arreta@onaro.eus). Webgunean ere kontsulta daiteke informazio guztia:

BULEGOA: **Bidebarrieta, 24 (943718010)**
WEBGUNEAN: <https://onaro.eus>

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI



FTTH (*Fiber to the Home*) teknologia aurreratua erabilita (ikusitako aurreko orrian).

Oraingoz, beste operadore batzuen sarera erabiliko du zerbitzua emateko, baina, etorkizunera begira, helburua da sare propioa erabiltzea zerbitzua emateko, Oñargik herrigunean instalatuta duen zuntz sarea baliatuz.

Internetarako sarbideaz gain, telefonía mugikorrek zerbitzua ere eskainiko du Onarok. Horretarako, beste operadore batzuen antenak erabiliko ditu, eta Euskaltelek duen estaldura maila bera eskainiko du (ikusitako aurreko orrian).

ABANTAILA UGARI

Herritik eta herritarrendako sortutako proiektua da Onaro, eta abantaila ugari ekarriko dizkie berarekin bat egiten dutenei. Onarok zuzeneko eta hurbileko arreta eskainiko du Bidebarrieta kaleko 24an duen bulegoan, eta zerbitzu bokazioa izango du. "Irabazi asmoak alde batera utzita, herritarrei ahalik eta zerbitzu onena ematea izango da gure helburua, amarru edo engainurik gabe, eta aurrezteko aukera (urtean 300€ inguru) eskainiz" adierazi dute proiektuaren sustatzaileek. ■



ZUNTZ SARE PROPIOA

Oñargiren sarea baliatuz, zuntz optikoa etxe guztietara hedatu nahi du Onarok

Goiko irudiak erakusten duen moduan herriguneko transformazio zentroak zuntz bidez konektatuta ditu Oñargik

Oraingoz, beste operadore batzuen sarea erabiliz eskainiko du bere zerbitzua Onarok, baina asmoa da, poliki poliki bere zuntz sarea hedatzea herrigune osoan, eta bere sare propioarekin eskaintzea Internet zerbitzu aurreratua, prezio baxuan.

Horretarako, Oñargik herrigunean hedatuta daukan sarea hartuko da oinarri. Etxeetako argindar kontagailuen irakurketa modu digitalean egin ahal izateko, herrigunean dituen transformazio zentroak (puntu moreak, goiko irudian) konektatu zituen zuntz bidez, eta goiko irudian ikusten den moduan, herriguneko zatirik handiena hartzen du sare horrek.

Zuntz optikoa transformazio zentro horietatik etxe partikularretara eramatea falta da sare osatzeko, eta lan hori herritarrekin batera egitea da udalaren asmoa. "Gaur egun etxe batzuetara iristen da zuntz optikoa, baina beste batzuetara ez. Orduan, aztertuko dugu zein den kasu bakoitzaren egoera, eta bizilagun komunitate batek interesa baldin badauka zuntza beraien etxeetaraino eramateko, horren kostua bere gain hartu beharko lukete. Internet zerbitzua gure sare propioetik jaso ezker, tarifa asko jaitsi daitekeela ikusten dugu, eta zuntza etxeraino eramateko inbertsioa urtebetean, gutxi gora behera, amortizatuta geratuko litzateke" azaldu dute Onaroko ordezkariak.

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

GAK
Garbitasunaren usaina

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarrean administrazioa
- Konponketa orokorrak

653 70 45 47
Oñati

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

FIDELTASUNAREN AITORTZA



Aitortza jaso duten odol emalleetako batzuk

Odola 25, 50 eta 75 aldiz eman duten hamalau herritarren konpromisoa aitortu du Oñatiko Odol Emaleen Elkarteak

» AITOR URZELAI

76 ATERALDI

18 urterekin, aitari laguntzen hasi nintzen odola ematen, eta gero neuk jarraitu nuen. Kanpoan ikasten egon nintzen garaian ez nuen odolik eman, baina, gainerakoan, nahiko konstantea izan naiz. Ostirala egun ona da odola emateko. Ez zait batere kostatzen hona etortzea. Gainera hemengo jendea oso jatorra da eta, asko jota, ordubete eskatzen dizu. Orain, gainera, txanda hartuta, azkarrago egiten da. Beraz, animatuko nuke jendea odola ematera; odola beharrezkoa da ospitaletan, eta geuk ere izan dezakegu odol premia edozein egunetan.



» NEREA URMENETA

28 ATERALDI

Kuadrillako lagun batekin batera 18 urte bete orduko hasi nintzen odola ematen, laguntzarren. Ama izan nintzen garaian utzi nion denbora batez odola emateari, baina gero berriro hasi nintzen, ikusten dudalako gaixo dagoen jende askok beharra daukala. Familian ere egokitu zait ikustea eta, beraz, nahiago dut lagundu eta nire aletxo ipini. Norberaren osasunerako ere oso ona da, odola berritu egiten delako, eta, gainera, psikologikoki ere oso ondo sentitzen zara odola eman ondoren, beharra dutenei laguntzen ari zarela ikusita.



» FERMIN ELORZA

51 ATERALDI

40 bat urterekin hasi nintzen odola ematen, koinatuak eta beste lagun batek animatuta. Haiek, gero, utzi egin behar izan zuten, eta neuk jarraitu nuen. Urtean pare bat aldiz behintzat etortzen naiz odola ematera. Oso gustura etortzen naiz. Ahal den neurrian etorri egin behar da, eta beharra dutenei lagundu. Ni behintzat gustura etortzen naiz, eta eskerrak eman nahi dizkiet hemen lanean egoten diren guztiei. Eta herritarrei, animatu daitezela; ez izateko dudarik, ez beldurrik, odola behar beharrezkoa delako, eta gizartearentzat komenigarria.



» AITOR ZUBIA

52 ATERALDI

Lagun batek animatuta hasi nintzen odola ematen, orain dela hogeitun bat urte. Esperientzia probatzea pentsatu nuen, eta gaur arte. Gero konpromisoa hartzen duzu eta, egia esan, ez da batere kostatzen, eta ohitura bihurtzen da. Nik uste dut beharrezkoa dela odola ematea. Guri ez zaigu ezertxo ere kostatzen, eta, aldiz, beste pertsona batzuk odol premian daude. Beraz, animatu egingo nuke jendea odola ematera; behintzat proba dezatela esperientzia, eta gero erabakiko dute jarraitu ala ez, baina ez daitezela geratu probatu barik.



Normalean, udazkenean eta eskualde mailan egin ohi da odol emaleen fidelotasuna aitortzeko ekitaldia, baina Covid-aren ondorioz iazkoa bertan behera geratu zen, eta herriz herri ekitaldi xumeagoak egitea erabaki du Gipuzkoako odol emaleen elkarteak.

Hala, Oñatin, ekaineko ateraldiarekin batera egin zitzaizen aitortza 25, 50 edo 75 aldiz odola eman duten hamalau herritarrei. Herriko odol emaleen delegazioko koordinatzaile Pili Irazabalek esker ona adierazi zien, erakusten duten konpromisoagatik; "zuek bezalako ereduak beharrezkoak dira ospitaletako odol erreserbak bermatuta egon daitezela" adierazi zuen.

Une honetan, odol emale aktiboak ez dira 300era iristen Oñatin, eta, beraz, dei egin zien herritarrei odola ematera, "ahalegin handirik eskatzen ez duen keinu batekin ematen den laguntza handia baita". Enpresagintza fakultateari ere eskerrak eman zizkion, odol ateraldiak egin ahal izateko ematen dituen erraztasun guztiengatik.

AITORTZA JASO DUTEN ODOL EMAILEAK

ZILARREZKO INTSIGNIA

25 emanaldi

- Iñigo Abaunz Colina
- M^a Jesus Eizagirren Landa
- Aitor Kerexeta Gabilondo
- M^a Dolores Torrealdei Arriaga
- Luis Ugarte Sagastizabal
- Nerea Urmeneta Mondragon
- M^a Milagros Yarza Ayastui

URREZKO INTSIGNIA

50 emanaldi gizonezkoak
40 emanaldi emakumezkoak

- M^a Angeles Iglesias Gomez
- Fermin Elorza Beitia
- Aitor Zubia Ayastui

EMAILE BIKAIN

75 emanaldi

- Aitor Bolinaga Arabaolaza
- Antton Etxeberria Arrese
- Ricardo Ribera Aranburu
- Aitor Urzelai Goenaga



Baratze parkea HANDITZEN

14 partzela berri egokitu ditu udalak San Martinen, eskariari erantzuteko. Denera 88 ortu daude orain.

Herritarren eskariari erantzuteko asmoz, 14 partzela berri egokitu ditu udalak San Martingo baratze parkean, goi aldean, Aldakiño aldera. Lursail hau lehendik ere erabiltzen zuten *Okitaño*-ko (baratze parkea kudeatzen duen elkarteak) kideek kala-bazak eta leku asko hartzen duten barazkiak landatzeko, baina ikusirik hainbat herritar zeudela ortu bat eskuratzeko gogoz, gunea txukundu eta 40m² inguruko hamalau par-

 **Catalana Occidente**

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Moxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

 **PINTURAS URBIA MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



AXIER IRAETA

Udaleko Ingurumen batzordeburua

"Zazpi urteko ibilbidea egin du baratze parkeak eta, osotasunean aztertuta, balorazioa oso positiboa da; zenbat ortu, zenbat herritar lanean, zein itxura ona duten baratzeek... Gustua ematen du hau ikusteak. Gipuzkoan ez omen dago hain ondo funtzionatzen duenik"

"Une honetan ez dago partzelarik libre, baina gogoz dagoena animatuko nuke lehenbailehen izena ematera udaletxean"

tzela berri prestatu ditu udalak, goiko argazkian ikusten den eran. Parke, lorategi eta baratzeen diseinuan aditua den *Kimubat* enpresak egin ditu lanak 15.071 eurotan.

Horrenbestez, hasieratik zeuden 74 ortuei gehituta, une honetan 88 sail daude San Martingo baratze parke publikoan. Horietatik lau edo bost partzela libre zeudela ikusita, interesa agertu zuten Okitaño kideen artean banatu dira zozketa bidez, baina

baldintza batekin: eskari berriak egonez gero, ortu horiek libre utzi beharko dituzte udazkenean.

Partzela edo sail berriak prestatzarekin batera, materialaren harrerarako beste gunea bat ere egokitu da, eskumako argazkian ikusten den moduan. Udalaren lorezaintza zerbitzuak moztutako belarra edota luarra uzteko gunea da, gero erabiltzaileek beraien ortuetan erabili ahal izateko.



Baratze gune berriarekin batera, materialarentzako harrera gunea ere egokituko dute San Martingen. Udalaren lorezaintza zerbitzuek moztutako belarra eta ongarria bezalako materiala uzten da bertan, gero erabiltzaileek beraien ortuetara eramateko

BALORAZIO POSITIBOA


Sei urteko ibilbidea egin du jada San Martingo baratze parkeak (zazpigarren denboraldia hasi da) eta balorazioa oso positiboa da, udaleko Ingurumen batzordeko buru eta baratze parkeko erabiltzaile den Axier Iraetaren iritziz. "Beti dago zer hobetua, eta erabiltzaile gisa gabezia batzuk ikusten badituz ere, osotasunean aztertuta balorazioa oso positiboa da. Zenbat ortu, zenbat herritar lanean, zein itxura ona duten baratzeek... Egia esan, gustua ematen du hau ikusteak. Eta kontuan hartuz auto-kudeatutako parke bat dela, guztiz autonomia, oso gustura gaude. Gipuzkoako beste parke batzuk ezagutzen dituen *Kimubat* enpresakoek esaten digute, herrialdean ez dagoela Oñatikoa bezain ondo funtzionatzen duen baratze parkerik".

Okitaño izeneko elkarteak kudeatzen du San Martingo baratze parkea. Urtero berri-

tzen den zuzendaritza bat dago eta batzarrean hartzen dituzte erabaki guztiak. Kide guztiek 70€-ko fidantza (ortua utzitakoan berreskuratzen da) eta 40€-ko urteko kuota (elkarteak erabakitzen du kopurua) ordaintzen dute. Garbiketak eta bestelako lan batzuk txandaka egiten dituzte, eta auzolanen bat edo beste ere egiten dute urtean zehar, parkean hobekuntzak egiteko. Iraunkorrak diren azpiegituretan egin beharreko inbertsioak udalak hartzen ditu bere gain, eta hitzaldi edo formazio saioak ere %50ean fintzatzen ditu udalak. Gainerako gastu txikiak elkarteak hartzen ditu bere gain.

ETORKIZUNEN ERERRONKAK


Urtero egiten dute hobekuntzaren bat baratze parkeko erabiltzaileek, udalaren laguntzarekin. Duela bi urte, adibidez, zortzi hazitegi egokitu zituzten, bakoitzak bere



COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP
OINATI@COINBROKER.EUS



landareak hazi ahal izateko, eta iaz negutegi bat ere ipini zuten, hazitegiko landareak indartzeko ortutan landatu baino lehen. Tamalez, baina, haize erauntsi batek kalte ugari eragin zituen beirazko eraikinean. Beraz, horiek konpondu eta negutegia martxan jartzea izango da aurtengo helburuetako bat.

Ortuetarako ongarrria parkean bertan sortzea da *Okitaño* elkartekoen beste asmoetako bat. Baratzeetan sortzen diren hondakinak baliatuz, zizare bidez konposta egitea da asmoa. Horretarako erabiliko diren kutzak barrutik forratzea eta tapak jartzea falta da. Hori ere aurtengo eginkizunen artean dago, Covid-aren baimenarekin.

Hobetu beharreko gauza batzuk ere badaude, jakina, elkarteko kide guztien inplikazioa eta parte hartzea ez delako berdina izaten auzo-lanetan, eta, tarteka, jokabide desegoki batzuk ere ikusten direlako; baina, oro har, parkeak oso ondo funtzionatzen du eta erabiltzaileak gustura daude. Une honetan, esan bezala, ez dago partzelarik libre, "baina gogoz dagoena animatuko nuke lehenbailen izena ematera udal-txean" dio Iraetak. ■

» ERABILTZAILEEN IRITZIAK

AINHOA ANDUAGA

Beti gustatu izan zait baratze gintza. Lehen ere eduki nuen ortu sail txiki bat, baina utzi beharra izan nuen eta udaletxean eman genuen izena bikoteak eta biok. Orain dela aste gutxi eman digute partzela hau, eta ari gara landaketak egiten: tomate, piper, kalabazin, azelga, letxuga... Berandu samar gabiltza, baina lehenago ezin izan dugu. Ikusiko dugu zer ematen duen. Oraingo oso gustura gaude. Lekua oso txukun dago eta giro ona dago erabiltzaileen artean, elkarri laguntzeko prest... Ez daukat kezarik.



CUIFEN ZHONG

Orain dela hilabete hartu dugu ortua eta oso gustura gaude. Lanetik irten ostean gustatzen zait hona etortzea; entretenigarria da eta erlaxatu egiten nau. Gainera, umeeek ere ikusten dute nola hazten diren barazkiak, eta interesgarria da. Lurra ahalik eta goxoen prestatzen saiatzen gara, baina ez daukat esperientziarik eta ez dakit zer aterako den; baina aurten ez bada, hurrengo urtean izango da. Eskatzekotan, formazio saio txiki bat eskatuko nuke hasiberrioi zuzenduta, sasoi bakoitzeko landaketen inguruan.



IOXE 'LOBEA'

Hasieratik nabil San Martingo ortuetan. Aurten zazpigarren urtea. Lehendik ere erabiltzen genuen gunea hau kalabazak eta leku asko hartzen duten barazkiak landatzeko, ze, bestela, norberaren partzela txikitxo geratzen da. Baina ikusita herritar gehiago zegoela ortu eske, udalak txukundu egin du gunea eta 14 partzela berri aterara dira. Oso txukun geratu da. Hamalau partzela horietatik bi libre zeudenez, baratzeetako erabiltzaileen artean zozketatu ditugu, eta erdibana eginda, lau lagun egokitu zaizkigu, tartean neuri.



INIGO MAIZTEGI

Lagun batek proposatuta eman nuen izena. Egia esanda, aukera izugarri ona iruditzen zait halako ortu bat herrian bertan eta etxetik gertu eduki ahal izatea. Ez daukat esperientziarik baratze gintzan, baina laguntza pitiin batekin landatu ditut tomateak, piper mota ezberdinak, letxugak, azelgak, kalabazinak, berenjenak eta tomateak. Zeozer ateratzen bada, nahikoa. Gunea berri hau oso txukun dagoela uste dut, ureztatzeko depositua ere bertan dago eta erabiltzaileen arteko giroa ere ona da. Oso pozik. Entrenimendu berria.



Gualbi

asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

“PREZIORIK ONENAK ETA GERTUKO ARRETA”

TELEFONO FINKOA

+ FIBRA
100Mb

+ 25Gb
MUGIKORRA
DEI MUGAGABEEKIN

+ 3Gb
2. MUGIKORRA
DEI MUGAGABEEKIN

39'90
€/HILEAN
(BEZ barne)

BETIRAKO. IGOERARIK GABE!
Alta ematea eta instalazioa **DOAN**

EXTRAK:

*Tarifa orokorretara gehitu daitezkeen aukerak

TV PREMIUM + **6** €/HILEAN

2. ETXEBIZITZA
FIBRA + FINKOA + **18'90** €/HILEAN
(Estatuko edozein herrian)

·MUGIKOR GEHIGARRIAK

5Gb + **3** €/HILEAN
DEI MUGAGABEEKIN

8Gb + **5** €/HILEAN
DEI MUGAGABEEKIN

25Gb + **8** €/HILEAN
DEI MUGAGABEEKIN

·ESKAITZA BEREZIA!

25Gb + **1** €/HILEAN
DEI MUGAGABEEKIN

2021eko abenduararte. Ondoren + 8 €
Franciso herri mugikorra berrantolatuko da.



*Tarifa guztiak ezagutzeko eta kontratatzeko,
Zatoz Iturritxo atzean dagoen gure dendara!*

MÁSMÓV!L

LIZKER
INFORMATIKA

Atzeko kale 32, OÑATI · Tel.: 943 090 600 (Aitor)

2019-2023 AGINTALDIAREN ERDIAN UDAL GOBERNUAREN BALORAZIOA

"Pandemia kudeatzen asmatu dugu, Herri Programan jasotakoak egiteari utzi gabe"

» COVIDak ezarritako unean uneko exigentzietan erantzun egokia ematen asmatu dugula uste dugu, eta, gainera, gure balioak nabarmendu direla pandemiaren kudeaketan

» Zailtasunak zailtasun, ez diogu Herri Programan jasotakoak egiteari utzi, eta horretan jarraituko dugu, herriaren alde eta herriarekin batera, Oñatik dabilen herria izaten jarrai dezan

2019-2023 agintaldiko aurreneko erdiaren balantzea egin du udal gobernu taldeak. Testuingurua ez da batere erraza izan, guztiontzat ezezaguna zen COVIDak eragindako bi urte izan direlako, baina momentuko egoerara moldatzen jakin duela uste du EH Bilduk, unean uneko exigentzietan erantzun egokia emanez. "Gainera, pandemiaren kudeaketan gure balioak eta izatea nabarmentzen ari direla uste dugu", adierazi dute Izaro Elorza alkateak eta Xabier Igartua zinegotziak.

COVID-19aren testuinguruan hartutako hainbat neurri gogora ekarri ditu alkateak. "Azokaren eta, oro har, lehen sektorearen aldeko apustu sendoa egin genuen, nekazarien zuzeneko salmenta bermatzeko beharrezkoak ziren bitartekoak jarritz. Bestalde, erosketa bono sistema jarri dugu martxan, herriko merkatariek jasandako kalteak leuntzeko, eta diru-laguntza bereziak abiarazi ditugu herriko negozioentzat".

Gizarte arloan hartutako neurriak ere gogorarazi ditu Elorzak. "Gizarte laguntzak indartu ditugu eta elkarren zaintzarako dinamika kolektibo eta komunitarioak bultzatu ditugu, esaterako". Kultur emanaldiak segurtasunez programatzen jarraitzeko egindako ahalegina, edo udan antolatutako zaintza-hezitzaile programa ere azpimarratu ditu.

Garbi utzi nahi izan du, hala ere, pandemia kudeatzeaz gain, gobernu taldeak ez diola utzi EH Bilduren Herri Programan jasotakoak gauzatzeari, eta arloz arlo aipatu ditu horietako batzuk.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

KIROLA

Zubikoa kiroldegia birgaitze lanak udal gobernuaren jardunaren erdigunean egon dira. "8,5 milioi euroko obra bat izan da eta haren gainean egon beharra dago halaberharrez, unean unean sortzen diren arazoei erantzun azkarra eta eraginkorra emateko. Uste dut egoki kudeatu dugula gaia eta pozik gaude emaitzarekin", adierazi du Igartuak.

Kiroldegiaz gain, Azkoagaineko irisgarritasun plana landu du udalak, eta aldagela berriak eraiki ditu. Bestalde, POZ ohitura osasuntsuen orientazio zerbitzuan sakondu du, eta herriko kirol eragileekin elkarlanean jardun du.

PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOA

Oñati parte hartzen duen herria izan dadin, bitartekoak eskaintzen segitzea eta horretan sakontzea da udal gobernuaren helburua. Ildo horretan, dinamika ezberdinak jarri ditu martxan, udaleko eta herri mailako beste arlo batzuetako eragileekin (hirigintza, haurrak eta gazteria, hezkuntza, berdintasuna...) sinergiak eta elkarlana bultzatuz.

Horrez gain, **Gobernantza eta Partehartze araudia** lantzen dihardu udalak. "Urrats inportantea da. Ez daude horrelako asko, eta parte hartze komunitarioaren alde egiten dugun apustuaren adierazle garbia da", adierazi du Elorzak.

SOZIOEKONOMIA

"Arlo honetan asko izan dira COVID-19aren testuinguruan hartutako neurriak, udal gobernu honek herriko negozioen alde duen jarreraren erakusgarri", adierazi du Igartuak. "Neurri batzuk epe luzera begirakoak izan dira, eta beste batzuk momentuko larritasunari erantzuteko adostutakoak".

Ildo horretan, Merkataritza Biziberritzeko Plan Estrategikoa eguneratu du udalak, eta hainbat ekimen jarri ditu martxan tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko enpresen alde. "Esaterako, *Herritik Zuztarrera* kanpaina sortu dugu, merkataritza eredu lokala eta jasagarria bultzatzeko, eta unean uneko diru-laguntzak eta dinamikak jarri ditugu martxan"

Bestalde, Turismo Plan Estrategikoa ere eguneratu du udalak, industria pabilioi hutsen inguruko diagnostikoa egin du, eta aurrerapausoak ematen dabil ekonomia sozial eraldatzaileraren bidean.

KULTURA ETA EUSKARA

"Kulturaren sakonduz, eguneroko jarduna bera alorrekiko eta sortzaileekiko dugun erres-



Kiroldegia birgaitzeko lanak udal gobernuaren jardunaren erdigunean egon dira



Azokaren eta, oro har, lehen sektorearen aldeko apustua egin zuen udalak COVIDaren testuinguruan



Herriko denda, ostatu eta zerbitzuek jasandako kalteak leuntzeko, erosketa bonuak atera ditu udalak



Pandemia garaian ere kulturaren alde egin du udalak, egoerak eskatzen dituen neurriak bermatuz

KIROLDEGIA

Kiroldegikoa bezalako obra handi bat egoki kudeatu dugula uste dugu, eta pozik gaude emaitzarekin

PARTAIDETZA

'Gobernantza eta Partehartze' araudia lantzen ari gara. Ez daude horrelako asko, eta partehartze komunitarioaren alde egiten dugun apustuaren erakusgarri da

SOZIOEKONOMIA

COVIDaren testuinguruan herriko negozioei laguntzeko hainbat neurri hartu ditugu. Horrez gain, Tokiko Merkataritza Biziberritzeko Plana eguneratu dugu, eta hasi gara neurriak implementatzen

petuaren adierazle dela esango nuke. Haien alde jardun baitugu lanean, haiekin, haiengatik eta haiendako", adierazi du Igartuak. "Kultur eskaintzari erreparatuz, bistan da herri aberatsa dela Oñati, eta hala izaten segi dezan bitartekoak jartzen jarraituko dugu herriko kultur eragileekin elkarlanean".

Horrez gain, *Erreusak* bezalako etnografia egitasmoa, *Jerardo Elortza* bilduma edota Udalbiltzarekin batera abian jarritako *Geuretik Sortuak* ekimena azpimarratu ditu udalak.

Euskara sustatzeko hartutako zenbait neurri ere gogoratu ditu Igartuak: "Leihatila digitaleko euskara maila hobetu dugu; Oñatiko euskara sustatu eta, bereziki, hitanoa berreskuratzeko egitasmoak babestu ditugu; eta ostalaritza eta zaintza alorreko langileei (etorkinei bereziki) zuzenduriko laguntza ildoak eta ikastaroak antolatu ditugu".

GIZARTE ZERBITZUAK

Bakardadean edo isolamenduan dauden adinekoen bizi-baldintzak hobetzeko asmoz abian jarri den *Begirada Adia* azpimarratu du udalak. Bestalde, etxez-etxeko langileen lan hitzarmena hobetzen jarraitzeko asmoa ere berretsi du udalak, kalitatezko zaintzan arreta jarritz. "Berdintasun planean ere jasoa dago hori. Integrazioa lantzen ere jarraitu dugu, eta unean uneko beharrak asetzeko neurriak hartu ditugu; COVID-19aren testuinguruan egiten gabiltzana da horren erakusgarri" adierazi dute.

BERDINTASUNA

Berdintasunaren alorrean lanean "gogor" dabiltzala adierazi du Elorzak. "Alde batetik, Emakumeen Jabekuntza Eskola indartu dugu, Emakumeen Kontseilua kontsolidatzeko bitartekoak jarri ditugu, eta Oñatiko Berdintasun Plan berria landu dugu. Gainera, ezin aipatu gabe utzi, Partaidetza sailarekin batera egindako diagnostikoa edota Emakumeen Etxearen proiektuan emaniko hasierako urratsak". Alkateak azaldu du berdintasuna presente dagoela zehar lerro bezala udalaren egunerokoan, eta, aintzat hartua dela, esaterako, hirigintza proiektuetan, antolaturiko ekintzetan eta ohiko funtzionamenduan, "oraindik zer hobetua badagoen arren".

LURRALDE ANTOLAKETA

Hiri Antolamendu Plan Orokor berriaren lanetan bete-betean sartuta dago udalak. "Apurka-apurka garatzen gabiltzan plana da, herritar askoren inplikazioa eskatzen duena. Une honetan helburu eta irizpide orokorrak onartu ditugu, eta bide onean doa", azaldu du alkateak.



Bio-arkitekturaren printzipioak aplikatuz berritzen ari dira natur eskola



Madalenako lantegietara modu jasangarri eta seguruan joateko bidegorria egokitu du udalak



Olakua eta San Lorenzo auzuneetako irisgarritasuna hobetzeko lanak egin dira



Komun irisgarriak ipini ditu udalak herriko bidegorri sarean

NATUR ESKOLA

Xehetasun guztiak zaindu gura izan ditugu, eta oso berezia izango da natur eskola berria. Amaitzeaz daude lanak

BAKARDADEA

Bakardadea jasaten duten adineko pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko asmoz 'Begirada Adia' izeneko egitasmoa jarri dugu abian

EMANTZIPAZIOA

Gazteen emantzipaziorako diru laguntza lerroa indartu egin dugu, eskatzaileen adin muga jaso (30 urtetik 35era) eta diru-saila handituz, 65.000 euroraino

Horrez gain, bidegorri zati berria egokitu da Madalenan, eta Olakua nahiz San Lorentzoko irisgarritasuna hobetzeko lanak egin dira.

INGURUMENA ETA ZERBITZUAK

Natur Eskola eraberritzeko proiektua azken txanpan sartuta dago, eta honek ere jarraipen estua eskatu du. "Xehetasun guztiak zaindu gura izan ditugu, eta esango nuke oso berezia izango dela natur eskola berria. Ez dira halako asko egongo", adierazi du alkateak.

Bestalde, hainbat komun jarri ditu udalak herriko bidegorri sarean. Bizikleta eta patineteentzako aparkaleku ugari egokitu dira, hondakinak murrizteko kontzientziario kanpainak egin dira, eta energia berriztagarriak sustatu dira.

Auzo-alkateen foroa ere berreskuratu da, udalaren eta landa auzoen arteko harremanean sakondu da, eta auzoetako internet arazoa konpontzeko lanean dabil udala. Araotzeko eskola zaharra ostatu bihurtzeko proiektua ere azken txanpan sartu da.

HAURRAK ETA GAZTERIA

Gazteen emantzipaziorako diru-laguntza lerroa indartu du udalak. "Eskatzaileen adin muga jaso dugu 30 urtetik 35era, eta diru saila ere handitu dugu (15.000 euroko igoera)", azaldu du alkateak. "Haur eta gazteen ahalduz sakontzeko hartua dugun bidea ere azpimarratuko nuke. Udal zerbitzuetan indartzen gabiltza parte hartze dinamikak eta helburu zehatzeko parte hartze prozesu berria jarri da berriki martxan, haur eta gazteen iritziak oso aintzat hartzen ditugulako".

HEZKUNTZA

Urrats garrantzitsuak eman ditugu Oñati herri hezitzailea izan dadin eta hitzarmena sinatu dugu *OinHerri* elkartearekin. Mugikortasun jasangarriaren proiektuan ere sakondu dugu eta ikastetxeetako hainbat kanpo espazio moldatu ditugu, haiekin elkarlanean, eskolako joan-etorriak oinez, bizikletaz edo patinetez egin daitezzen sustatzeko eta espazio seguruak bermatzeko. ■



Araotzeko eskola zaharra ostatu bihurtzeko lanak oso aurreratuta daude.



Bizikleta eta patineteentzako aparkalekuak egokitu dira herriko zenbait gunetan



Ikastetxe inguruak egokitu dira, mugikortasun jasangarria sustatu eta espazio segurua bermatzeko

MUGIKORTASUNA

Herriko ikastetxeekin batera hainbat kanpo espazio egokitu ditugu gune seguruak bermatu eta mugikortasun jasangarria sustatzuz

BERDINTASUNA

Emakumeen Jabetze Eskola indartu dugu, Berdintasun Plana eguneratu dugu eta, besteak beste, Emakumeen Etxea proiektuaren lehenengo urratsak eman ditugu

EGUR-LAN
AROTZEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL. FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop



2019/2023 AGINTALDIAREN ERDIAN EAJren BALORAZIOA

"Beti defendatu dugu elkarlana dela emaitza hobek lortzeko giltzarrietako bat, eta horri eutsiko diogu"

Pandemiari aurre egiteko udal ordezkari guztion jarduna herritarrei babesa eta laguntza eskaintzean oinarritu izana azpimarratu du EAJk

Agintaldiaren erdira iritsi garen honetan, zein da balorazio orokorra?

Zalantzarik gabe, Covid-19ak guztiz markatutako legealdia izaten ari da oraingoa. Dena den, Oñatiko udal-jardunean, pandemiak zerbait ona ekarri duela esan genezake, behin-goiz, elkarriketa eta, gehienetan, elkarlana eman baita Udala osatzen dugun bi alderdien artean. Guk beti defendatu dugu elkarlana emaitza hobek lortzeko giltzarrietako bat dela eta azken gertakari hauek bistako egin dute. Izan ere, horrela ateratu dira aurrera, besteak beste, EAJk proposatutako merkataritza eta ostalaritza sustatzeko bonuak. Ildo horretan, halaber, tokiko

merkataritzan digitalizazioaren eta kontsumoaren sentsibilizazioaren arloan EAJk proposatu eta lehenetsitako ekintzak ere abian jartzen ari dira, azkenean.

Horrez gain, EAJk kulturarekiko apustu irmoa egin du; eta horretarako, herriko kultura-sormenari laguntza eskaintzen,

HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLANA

» ***Gobernu taldeak aurkeztu duen Aurrerakin dokumentuaren arabera, Oñatin luzaroon ez da babes ofizialeko etxebizitzarik egongo. Gure apustua Garayko lurretan etxebizitza garapena ahalbidetzea da eta etxebizitzaren %75 babes ofizialekoak izatea.***

kultura-egitarauari eusten eta Oñatiko bereizgarri diren kultura-ekintzei segida ematen jarraituko dugu.

Etorkizuneko Oñati diseinatzea helburu duen HAPOa eguneratzen ari da udala, eta gobernu taldeak aurkeztu duen Aurrerakin dokumentuarekin desadostasuna azaldu duzue. Zergatik?

Hainbat esparruren artean, bereziki datozen urteetako etxebizitzak Cegasa eta Eroski-Berazao lurzoruetan kokatzea izugarriko akatsa dela uste dugu.

Cegasaren eraldaketa (250 etxebizitza aurreikusten ditu planak) une honetan bideraezina da, fabrika lekuz aldatu beharko

litzatekeelako; eta, era berean, pentsaezina da Eroski-Berezaon 190 etxebizitza sartzea (gainera, ez da etxebizitzak egiteko lekurik onena). Beraz, bizitegi-lurzoruaren estrategiari dagokionez, plana paper bustia da. Horren ondorioz, denbora luzean ez da babes ofizialeko etxebizitzarik egongo, eta gazteek, adibidez, ez dute etxebizitza eskuragarri izango independizatzeko edo familiak osatzeko.

Gure apustua Garayko lurretan bizitegi-garapena ahalbidetzea da. Garapen horretako etxebizitzaren %75-a babes ofizialekoak izango lirateke. Horrela, gainera, herriak erabilera publikoko berdegune berriak lortuko litzuzke; baita ekipamenduak garatzeko lurzuak eta San Lorentzo eta Errekalde arteko lotura egoki bat ere, dagoen tunela kenduz.

Prozedurari dagokionez ere, Aurrerakin dokumentuari iradokizunak aurkezteko epean jendaurreko aurkezpenik egin ez izana kritikatu duzue.

Gure ustez, oñatiarrei ez zaie behar bezala jakinarazi zer planteatu den aurrerakinean. Ez da bete Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 artikulua. Horri jarraiki, iradokizunak egiteko epea hasi baino lehen, Udalak gutxienez jendaurreko saio ireki bat egin behar zuen dokumentua azaltzeko, planoen erakusketa fisiko bat Kultur Etxean, eta informazio-triptikoak prestatu behar zituen.

Egia da tailerrak egin direla, baina guztiak plana exekutatzeko prozesuan zehar, eta parte-hartze txikiarekin. Aurrerapena osatu ostean, ordea, ez zaie oñatiarrei behar bezala azaldu dokumentua, beren iradokizunak egin ahal ditzaten.

Zer botatzen duzue faltan une honetan herri mailan. Zertan ipini beharko litzake fokua edo indarra, zuen ustez?

HAPoaz haratago, lehen sektorea indartzeko laguntzak eta

merkataritza zein ostalaritza sustatzeko programa gehigarriak beharrezkoak dira. Oñatiko EAJ urteak doa programa eta ekimen horien alde egiten eta proposamenak aurkezten; pandemia heldu den arte Oñatiko udal gobernuak ez du horrelakorik martxan jarri. Bada, orain, hartutako martxa horri gutxienez, jarraipena ematea espero dugu eta baita ekintza berriak martxan jartzea ere.

FUTBOL ZELAIA

» *Gure iritzitan Korriuenan izango litzateke aukera egokiena, ondo komunikatuta dagoelako eta azpiegitura ugari eraikitzeak aukera eskaintzen duelako, baina erabaki hori Aloña Mendirekin adostu behar dela uste dugu*

LEHENTASUNAK

» *HAPoaz haratago, merkataritza eta ostalaritza sustatzeko programa gehigarriak egitea, mendekotasun maila txikiak artatzeko eguneko zentroa zabaltzea, Eguneko Zentroko plazak gehitzea eta ingurumenaren zaintzarekiko kontzientzia eta ardura bultzatzea dira, gure ustez, lehentasunak une honetan*

Gainera, mendekotasun-maila txikiak artatzeko eguneko arreta-zentroa zabaltzea eta Eguneko zentroko plazak gehitzea ere faltan botatzen dugu. Pandemiak oraindik bistakoago egin du adinekoen eta mendekotasuna duten herritarrei begira Oñatik duen hobekuntza-beharra eta premiazkoa da gabezi horiei guztiei erantzuna ematea.

Amaitzeko, ingurumenaren zaintzarekiko kontzientzia eta ardura bultzatzearen alde lana egiten jarraituko dugu: San Martingo hariztiaren egoera hobetzeko neurriak, Urrutxuko zabortegia zigitatzeko aurrerapausoak eman...

Futbol zelaiaren arazoari konponbide integral bat eman beharra ere azpimarratu duzue. Horren harira, Korriuenan gunea aipatu duzue aukera bezala. Aldatu egin al duzue ikuspuntua? Eta halako kirol azpiegitura berri bati ekiteko moduan dago orain udala?

Beti pentsatu izan dugu futbol-zelaiak Urrutxun eraikiz gero, atletismo-pistez inguratuta egon behar zuela, hori baita pistentzako kokaleku egingarri bakarra. Hala ere, uste dugu aukera hori Aloña Mendirekin adostu beharko litzatekeela.

Kirol taldeak Urrutxuko kokapena begi onez ikusiko ez balu, gure ustetan Korriuenan izango litzateke aukera egokiena, ondo komunikatuta dagoelako, gertukoa delako eta azpiegitura ugari eraikitzeak aukera ematen duelako. Gainera, Azkoagaintetik gertu dago, beraz, bi futbol zelaiak osa daitzeko.

Hala eta guztiz ere, guk ez dugu esaten futbol zelaiak orain eraiki behar den zerbait denik. Behin HAPoA definituta, herritarrekin batera erabaki beharko litzateke zeintzuk diren lehentasunak eta horren baitan, udal baliabideak aztertuta, horiei erantzuna ematen joan.

COVID-19ak baldintzatutako agintaldia izaten ari da, bereziki azken urtea. Aurreikusiten ez ziren neurriak hartu behar izan ditu udalak.

Elkarrizketaren hasieran adierazi bezala, COVIDak ekarri duen egoeraren aurrean, Oñatiko Udalen, eta udal-langileen egunero jarduna eta ahalegina herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea bermatzea izan da. Horri lotuta, bi alderdien arteko elkarlana bilatu dugu eta guztion konpromisoari esker lortu dugu Oñati, 8.000 biztanletik gorako herrien artean (22 herri), laguntza zuzen gehien bideratu dituen bigarren udalerrria izatea. ■

Kiroldegiko terraza eta belardia zabalik

Igerileku handiko 1, 2 eta 3 kaleak eta igerileku txikia eremu irekiak izango dira udan eta espazio horiek erabiltzeko terraza-belaldiaren erreserba egin behar da



Oraingoz eguraldiak askorik lagundu ez badu ere, ekainaren 21az geroztik zabalik eta erabilgarri daude kiroldegiko belardia eta igerilekuaren gainean egokitu den solarium edo terraza berria. Oraingoz aforo mugatuarekin funtzionatuko dute (goiko terraza edo solariumean 50 pertsona, gehienez, eta beheko terrazan eta belardian 100 pertsona, gehienez). Beraz, aurrez erreserba egin beharra dago udalaren webgunean (<https://zubikoakiroldegia.oñati.eus>) edo kiroldegiko harreran (943716375). Hiru orduko txandak ematen dira.

Terrazara ezin da kaleko arropekin sartu; aldageletan aldatu eta bainujantziarekin sartu behar da, osasun eta higiene arrazoiengatik. Erretzea debekatuta dago, eta ezin da baloiarekin, puxikekin edo erabiltzaileei traba egin diezaiekeen edozein material edo gailurekin jolas egin. Terraza inguratzen duen beiratera larregi ez hurbiltzea gomendatzen da.

GUNE IREKIA IGERILEKUAN

Igerileku txikia eta igerileku handiko zati bat (1, 2 eta 3 kaleak) eremu irekiak izango dira udako denboraldian, eta igerilekuko espazio ireki hauetara sartzeko solariuma, terraza eta belardiaren erreserba egin beharko da. Horren harira, gogoratu, igerilekuko goizeko lehen orduetako erabiltzaileek bereziki, espazio irekiko kaleak (1, 2 eta 3) markatu gabe egongo direla.

Kiroldegiko abonatu ez direnek sarrera ordaindu beharko dute: 21 urte azpikoek 2,55€ (10eko bonoa 19,30€), eta 21 urtetik gorakoek 5,05€ (10eko bonoa 38,55€).

SAUNA ETA SQUASHA

Sauna gunean eta squash-ean azken ukituak egiten dihardute egunotan, eta bi zerbitzu hauek ere datozen egunetan martxan jartzea espero dute kiroldegiko arduradunek.

KIROLDEGIKO ORDUTEGIA

Uztaia: astelehenetik ostiralera 7:30-21:30 eta asteburuetan 9:00-20:00. **Abuztua:** astelehenetik larunbatera 10:00-20:00.

Gogoratu, bazkide txartela beharrezkoa dela instalazioetan sartzeko eta irteteko. Kontuan izan, gainera, musukoa erabiltzea ere derrigorrezkoa dela eta arropak takiletan utzi behar direla.

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

UR-UHINAK PARKEA



Aforo mugatua izango du Eltzia aurrealdeko Ur-uhinak jolas parkeak. Gehienez 50 lagun ibili ahal izango dira aldi berean. Beraz, ur txorrotan jolastu ahal izateko txanda hartu beharko da. Txandak 30 minutukoak izango dira (baina beharren eta unean uneko eskariaren arabera aldatu ahal izango dira). Ur parkean egongo den zaintzaile-harreragileari eskatu ahal izango zaio txanda, edo, bestela, **688 621 142** zenbakira deituta. Ur-uhinak parkea irailaren 12ra arte egongo da zabalik, egunero, 11:00-13:00 eta 15:00-21:00.

SOROSLE ZERBITZUA USAKON

Ekainaren 12an ireki zen ofizialki bainu denboraldia Usakon eta irailaren 12ra arte luzatuko da. Tarte horretan sorosle zerbitzua egongo da arratsaldero, 15:00etatik 21:00etara, eta zaintzaile bat ere egongo da, COVID protokoloa betetzen dela ziurtatzeko. Gogoratu, gainera, Herribusak bi joan-etorri egiten dituela egunero: Ugarkaldetik 16:00etan abiatzen den B lineako autobusa, eta 19:30etako A lineakoa joaten dira Usakoraino.



64 kolunbario jarri ditu udalak kanposantuan

Udal hilerria ia beteta dago, lau hilobi besterik ez daude hutsik, eta, hori ikusita, udalak erabaki ezberdinak hartu ditu. Alde batetik, hilobien emakida edo kontzesio berriak etetea erabaki du eta, bestalde, hildakoak erraustea erabakitzen duten familiak gero eta gehiago direla ikusita, erraustsak gordetzeko kutxa edo kolunbarioak egokitu ditu kanposantuko alde berrienean, goiko argazkian ikusten den moduan. Granitozko estalkia duten 64 kutxa dira guztira, eta kanpoko egitura altzairu herdogaitzekoa dute. Kutxa bakoitzak 4/8 poterentzako edukiera du. Udalak Dixinox enpresari erosi dizkio kutxak 14.056 €-tan (BEZ gabe). Kolunbarioen emakida edo kontzesioa 10 urterako izango da, eta urteko tributu-kuota 150 €-tan finkatu da (plaka barne).

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

DUAL LANERAKO GERTU!

ERASMUS

PRAKTIKAK LANTEGIAN

2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Matrikulazioa

Uztailaren 13tik 17ra

Eskaintza akademikoa	
OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> •Administrazioa eta Finantzak •Zuzendaritza Idazkaritza •Salmenta Kudeaketa 	<ul style="list-style-type: none"> •Automatizazioa eta Robotika Industrialak •Sareko Informatika Sistemen Administrazioa •Fabrikazio Mekanikoko Diseinua •Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa •Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
onarpens.lhm@mondragon.edu
664 298 704 · 664 298 683

IBIS RODRIGUEZ / ELIKAGAIEN ELKARTASUN PROIEKTUKO KOORDINATZAILEA

"Oñatiko ia 100 familien egoera ekonomiko, sozial eta psikologiko zaila arintzen laguntzen dugu"

OÑATIKO ELIKAGAIEN BANKUAK HAMAR URTE BETEKO DITU AURTEN

Udalak hitzarmena berri du ACESMA elkartearekin, proiektuaren oinarriak sendotu eta herrian burutzen ari den funtzio sozial garrantzitsuari jarraipena emateko.

Oñatiko 'Elikagaien Elkartasun Proiektua' orain dela hamar urte sortu zuen ACESMA (Asociación Cubano Extranjera Sierra Maestra) elkarteak, Ibis Rodriguez buru zuela, etorkinei eta zailtasun ekonomikoak dituzten herritar guztiei laguntzeko asmoz. Gipuzkoako Elikagaien Bankutik, Europako FEAD Fondotik, eta Oñatiko zenbait dendatik jasotzen dituzten elikagaiak banatzen dituzte astero. Funtzio sozial eta humanitario garrantzitsua betetzen duela iritzita, Udalak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen ACESMA elkartearekin 2019an, proiektuaren irizpideak bateratu eta oinarriak sendotzeko. Hitzarmen hori berri egin dute orain.

Nola baloratzen duzu udalarekin berri duzun lankidetzaren hitzarmena?

Guretzat oso positiboa da. Alde batetik, hainbat urtetan egiten ari garen lanaren errekonozimendu moralak delako, eta, bestetik, udalaren laguntza jasotzeak proiektuari egonkortasuna eta sendotasuna ematen diolako.

Elikagaien biltegiatzea eta banaketa egiteko lokala, eta garraio gastuei aurre egiteko laguntza ematen dizue udalak, besteak beste, baina elikagaien garraioa egiteko zuen ibilgailuak erabiltzen dituzue oraindik, ezta?

Bai. Udalak utzi izan digu bere ibilgailua elikagaiak ekartzeko Bergaratik (Gipuzkoako Elikagaien Bankua) eta Irundik (Europako Laguntza Programa), baina ulertzen dugu udalak beste lan batzuetarako behar dituela bere ibilgailuak.

Beraz, oraingoz, proiektuaren kolaboratzaileen ibilgailuetan egiten dugu elikagaien garraioa, baina gure asmoa da kanpaina bat abian jartzea, furgoneta bat erosteko behar den dirua lortu



Ibis Rodriguez, ACESMA elkartearen eta Oñatiko Elkartasun Elikagaiak proiektuaren sortzaile eta koordinatzailea

ahal izateko. Asmoa litzateke furgoneta hori arlo sozialean lan egiten duten herriko beste elkarte batzuk ere erabili ahal izatea.

10 urte beteko ditu aurten Oñatiko Elikagaien Bankuak. Zein balorazio egiten duzue?

Onuradunen artean egin dugun azken inkestak garbi erakusten du proiektu honen garrantzia eta beharra. Eta COVID garaian inoiz baino agerikoagoa izan da behar hori, jende asko lan barik eta diru-sarrea barik geratu delako, eta ez bakarrik etorkinak, baita Oñatiko bertako jendea ere.

Beraz, hobe horrela ez balitz, baina uste dugu proiektu hau beharrezkoa dela gaur egun ere, egoera zailan dagoen jende askori laguntzen diolako. Zorionez, boluntario talde sendoa eta egonkorra dago, eta laguntzen jarraitzeko prest gaude gu.

Zein dira Oñatiko elikagaien bankuko laguntza jasotzeko betebeharrak?

Oñatin bizitzen egotea, batetik, eta laguntza beharrean daudela

egiaztatzea, bestetik. Horretarako dokumentazio jakin bat aurkeztu behar du eskatzaileak. Dokumentazio hori erabiltzen dugu geure kontrola eramateko eta Gipuzkoako Elikagaien Bankura aurkeztu behar ditugun txostenak osatzeko.

Nora jo behar du elikagaien bankuko laguntza behar duen herritarrek?

Hiru sarbide ditu elikagaien bankuak: Caritas, Elkarzabal eta ACESMA. Beraz, laguntza beharrean dagoenak horietako batera jo dezake. Udal Gizarte Zerbitzuek ere babesten dute proiektua, jakina, baina ez da komeni hauek saturatzea.

Zenbat onuradun ditu egun Oñatiko Elikagaien Bankuak?

COVIDaren unerik latzenez oso gora egin zuen onuradunen kopuruak, baina orain egonkortu egin da eta, une honetan, 97 familiak jasotzen dute laguntza; gutxi gora behera 277 pertsonak. Ostegunero egiten dugu elikagai banaketa, familia onuradunek duten kide kopuruaren arabera.

Nondik jasotzen dituzue elikagaiak?

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Bergaran duen egoitzatik astero jasotzen ditugu azken minututuko elikagaiak (galkorrak), eta hilean behin biltegikoak (ez galkorrak). Bestetik, urtean bi edo hiru aldiz Europako FEAD programako elikagaiak jasotzen ditugu, Irunen, Gipuzkoako Gurutze Gorriaren bitartez. Horiez gain, ostegunero elikagai freskoak (barazkiak, haragia, esnea...) jasotzen dugu proiektuarekin kolaboratzen duten

LANKIDETZA HITZARMENA (PUNTU NAGUSIAK)

- ACESMA elkartearen arduratuko da elikagaien banaketaz, eta horretarako behar diren boluntarioak biltzeaz. ACESMAk hitzarmena sinatuko du Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin eta honek eskatutako txostenak egingo ditu.
- Udalak ACESMAren esku utziko du elikagaiak biltegitzeko eta banatzeko ibarran daukan biltegiko lokala. Udalak hartuko ditu bere gain lokaleko hornidura gastuak (argindarra, ura) eta aseguruak.
- ACESMA arduratuko da elikagaiak Oñatira garraiatzeaz: Bergarako Elikagaien Bankutik (astero elikagai freskoak, eta hilean behin produktu ez galkorrak), Irundik, urtean bizpahiru aldiz, Europako Laguntza Funtseko elikagaiak, eta Oñatiko zenbait dendetatik azken minutuko elikagaiak, astero.
- Udalak diru laguntza emango dio ACESMAri, elikagaien garraio gastuak, lokalaren garbiketak, bulegoko materiala eta erantzukizun zibileko aseguruak ordaintzen laguntzeko.
- CEAR-Euskadiko kideek hileroko elikagaien zamaketa lanean lagunduko dute.

» **Udalarekin sinatu dugun hitzarmena oso positiboa da guretzat, hainbat urtetan egindako lanaren aitortza delako, eta proiektuari egonkortasuna eta sendotasuna ematen diolako**

» **Gaur egun 97 familiak (277 pertsona) jasotzen dute Oñatiko elikagaien bankuko laguntza**

Oñatiko saltokietatik (Super BM, Eroski eta Sustrai fruta dendak).

Orain dela hamar urte sortu zenuen Elikagaien Elkartasun Proiektua eta, orduz geroztik, makina bat denbora, lan eta izerdi eskaini diozu, eta dena musu-truk. Zergatik?

Betidanik izan naiz pertsona ekintzailea eta behatzailea. Nik 26 urte daramatzat Oñatin eta integratuta nago bertan, baina ikusten nuen hainbat gauza egin zitezkeela etorkinei laguntzeko eta hauen inklusioa sustatzeko, eta helburu horrekin sortu nuen ACESMA elkartearen nire ilobekin (Alejandro eta Dorivis) batera, 2011ko ekainaren 25ean.

Urte horren amaieran jarrri genuen martxan elikagaien bankua, gaur baino askoz ere maila apalagoan. Nire garajearen batzen genituen han eta hemen batutako elikagaiak, eta egoera ekonomiko zailean zeuden etorkinen artean banatzen hasi ginen. Niretako oso proiektu

kuttuna da, berezia, baina argi utzi nahi nuke, nirekin batera kolaboratzaile talde egonkor bat dagoela hasiera hasieratik, eta horien laguntzarik gabe ezinezkoa izango zela proiektu hau aurrera ateratzea.

ACESMAren proiektu nagusietako bat da elikagaien bankua, baina ez bakarria, ezta?

Ez. 'Kultur erroak' izeneko proiektua ere oso interesgarria dela uste dut. Herrialde ezberdinetako egun nazionalen inguruan kultur eta folklore ekitaldiak antolatu izan ditugu, euskal kulturarekin uztartuz, eta uste dut lagungarriak direla inklusioa sustatzeko. Aurtun, ACESMAk hamar urte bete dituela ospatzeko, ekitaldi berezi bat antolatuko dugu uztailearen 26aren (Kubako egun nazionala) inguruan.

Gure jatorrizko herrietan daudden behar sozialei erantzuten laguntzeko elkartasun kanpaina ezberdinak ere antolatzen ditugu, besteak beste. ■



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

**IRAGARRI
ZAITEZ
ESPASIO
HONETAN**

publi@onati.eus



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Ezin ditugu onartu Stadler-ek iragarri dituen kaleratzeak eta soldata murrizketak

Amagoia Lasagabaster (ELA sindikatua)

ELAk ezin du onartu Stadler S.A. enpresak iragarri duen EREa eta langileen soldatak %30 jaitea.

ELAk erabat baztertu ditu Oñatiko Stadler S.A. enpresak iragarri dituen 65 langiletik 12 kaleratzea eta gainerako langileen soldata %30 murriztea. Enpresak arrazoi ekonomikoak eta produktiboak argudiatu ditu horretarako.

ELAren ustez, enpresaren erabaki hori onartezina da, iragarpenak langileen ia %20 kalean uztea ekarriko lukeelako eta langileen lan-baldintzak prekarizatzeko maniobra bat delako.

Horren aurrean, ELAk Stadler S.A. ko langileen lan-baldintzak defendatuko dituela iragarri du, eta egoera horren aurka borrokatzeko mobilizazioak egingo dituela.

UDALAREN OHARRAK

► Txaketuako bidegurutzeko piboteak uztailaren 2an jarriko dira martxan

Gogoratu, piboteak jasota eta, beraz, errepidea itxita egongo dela ibilgailuentzat ordutegi honetan:

ASTEBUJUAN:

- Ostirala 16:00 - larunbata 07:00

- Larunbata 12:00 - astelehena 07:00

JAI EGUNAK:

- Bezperan 16:00 jasoko dira piboteak eta jai egunaren biharamunean 07:00etan jaitsiko

► MUGI sistema Herribusean martxan jarriko da uztailaren 1etik aurrera

Uztailaren 1etik aurrera Herribusa MUGI txartelarekin ordaindu ahal izango da, eta sistema horrek eskaintzen dituen deskontuez baliatu. Herritarrek hilabeteko epea izango dute aurretik dituzten Herribuseko bonoak erabiltzeko.

Atxintxika Triatloi Egokituko sailak aurreneko zozketa



Kirol egokituko saila sendotzen jarraitzeko asmoz 'Izan Bazkide Laguntzaile' kanpaina jarri zuen abian Antxintxika Triatloi Egokituko sailak apirilean, eta orduan aurreratu zuten moduan, hiru hilabeteko zozketa bat (eta urte bukaeran zozketa berezia) egingo dute bazkideen artean. Bada, dagoeneko egin dute aurreneko zozketa, bizikleta bat, eta ondoko argazkian ikusten den moduan, Eider Arantzabal Arantzeta izan da saritua.


Gogoratu, muga funtzional ezberdinak dituzten herritarrei kirola egiten lagundu nahi izanez gero, Antxintxika Triatloi Egokituko taldeko bazkide (30€/urtean) edo laguntzaile (15€/urtean) egiteko aukera dagoela, txoske@yahoo.es helbidera idatzita.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Lagun on bati sorpresa berezia

 Denbora da lagun arteko bilerak eten edo murriztu zitzaizkigunetik. Bada, aspaldian ikusi gabe zegoen lagun talde batek ideia itzela izan zuen elkartzea ahaztezina izan zedin. *Butch Band* taldearen Kontzertu sorpresa bat Belarreko larreetan, afari-merienda eginez, eta lagun gutxi batzuen konpainian. Plan hobetik?



MIKEL BRAVO

URKIAREN ONURAK

Esteban Irusta Mallea

Zuhaitz hau ez da oso ugaria gure artean, eta baliteke kale-tarrentzat ezezaguna gertatzea. Baina bere garaian ugaria izango zen, Urkidi abizenak adierazten duen bezela. Baserritarrek ondo ezagutzen dute, nahiz eta gaur egun ez den hainbeste ikusten gure inguruan. Karrantzan eta Pirinioetako mendietan aurkitzen da gehien bat. Urkia arbola polita da. Gehienetan bakarka ikusten zen soroak mugatzen, eta oso gutxitan sailean. Izenak berak seinatzen du bere eginkizuna: ur-isuriaren mugak seinatzea. Sarritan, ur-isuriaren arabera banatzen baitziren terenoak, eta hantxe urrundik ikusten zen urkia bere enbor eta adar zuri distiratsuekin.

Dena den, bere ospea, gure artean, ez da Ipar Europan edo Errusian izan duen bestekoa. Finlandian, adibidez, zuhaitz nazionala da, eta zeltek berriztapenaren eta purifikazio Espiritualaren sinonimotzat hartzen zuten. Erresuma Batuan, zenbait lorazainek, oraindik, urkiz egindako arrasteluak eta erratzak erabiltzen dituzte lorategiak purifikatzeko. Eskoziako lurralde altuetako jendeek sinesten zuten behi antzuak urkiz egindako makil batzuek gidatuz gero, emankorrek bihurtiko zirela eta jaiotako txekorra osasuntsua izango zela.

Esanahi mitologiko hauek eta besteak alde batera utziz, egia da urkia, ia dena, probetxuzkoa dela: azala, zotzak eta abarrak sua pizteko ezin hobeak; zura material primerakoa: lantzeko biguna, hezedurari aurre egiteko ona, ustelkaitza. Zenbat kaiku,

esne-ontzi, lera eta trineo, gurdi, txaboletako hainbat ontzi, zenbat utzari eta beste ez ote dira egin urkiaz. Zaila da zura zartatzea eta printzatzeta. Adarretako makilatxo zumiztiarrak oso egokiak ziren esku-saski, otzara eta banastagintzan erabiltzeko; baita erratzetarako ere. Ustelkaitza eta iragazkaitza delako, etxeari gaina kanaberazkoa ematen zitzaionean urki azala azpitik ipintzean ez zitzaion tantanik pasatuko. Teila ordekotza egiten zuen hainbat herrialdeetako txabola eta etxeetan. Itsasontzi xume, kanoak, urpean eduki behar diren upel, ontzi, baso eta beste egiteko ere aparta.

Erretxina ere lortzen dute urkiarekin. Gaineko azal zuria ipini ontzi batean egosten, su lasaian, egosialdi luzean, iragazi dezan. Ontziak sendotzeko eta kanpotik iragazkaitz egiteko, erretxina oso estimatua lortuz. Urkiaren azala zerabilten era askotara: azal zurian idazten zuten; azalarekin egindako tindu gorria, berriz, idazteko. Gose urtetan, barruko azala eho eta beste irin batzuekin nahasian, ogia oretzeko balio zuen, fekula eta azukrea dituelako. Bildu eta kiribilduz, zuzitarako balio dizu. Urkia asko erabiltzen zen botikarako. Hostoa herrialde askotan hartu ohi da te infusioa egiteko. Barrua garbitzen du, diuretiko da, izerditzien eta toxinak botatzen laguntzen du. Aire txarrak ateratzen, hezueria eta hidropesia sendatzen, giltzurruneko harri eta gibebeko gaitzen kontra ere oso ona omen. Bere izerdiaz, urki-ardoa eta urki-garagardoa prestatzen dituzte lurralde iparraldeko hotz haietan. Germania aldean, izerdi hau hartzen zuten goizean baraurik, giltzurrunetako harriak desegiteko eta hezuerian(gota)oineko minak kentzeko. Garbi dago gure artean zuhaitz hau baliotsua izan bada ere, beste tokietan baliogarritasun gehiago ateratzen ziotela.

 **garmendia tejas**

Basozabal Industriadea 5 · N-1, km 417

20212 Olaberría (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

www.garmendiatejas.com



Aktu egiten
dugu 100%



Kalitate garrantzitsua



Denak
berberak





Gure ekintzen berri emango duen atala...

DBH4KO GAZTELEKUKO PROZESUA

Azken urteei erreparatuta, dagoeneko ohitura bihurtu da Gaztelekuan, DBH4ko adinean dauden herriko gazteak Gaztelekuko prozesua deitzen dugun proiektuan parte hartzea. Bertan, ekintza, zeregin eta ardura desberdinak gauzatuaz, lortutako irabaziekin beraiek erabakitako bidaia gauzatzeko saiatzeko gara. Horrela izan da azken urteetan, baina iazko ikasturteko taldeak izan zuten berezitasunik ...

Iazko kurtsoan, 2004ko generazioari egokitzen zitzaion Gaztelekuko prozesuan hastea eta horrela egin zuten 2019ko irailean. Hemezortzi laguneko talde bat bildu ziren proiektuaren baitan eta beraien indar eta ilusioekin hainbat ekintza gauzatu zituzten: kartel pegadak, buzoneoak, Arimen Eguna, Erronken arratsaldea, Sotoko irekiera, ... Oso martxa onean zihozazela, 2020ko martxoan denok dakiguna iritsi zen eta pandemiaren ondorioz bertan behera geratu ziren beraien asmoak. Ordurako erabakita zuten beraien destinoa: Lisboa; eta bertako zenbait gasturen ordainketak ere eginak zituzten.

Gauzak horrela, ezin izan zuten irabazitako diruarekin ordainduta zuten bidaia disfrutatu baina kontu korrontean geratu zitzaizen diru kopuruarekin zer egin pentsatzen ibili dira orain arte. Azkenean, geratzen zitzaizen dirua Hotz Oñati elkarteari ematea erabaki dute.

Gaztelekuko hezitzaileok benetan harro gaude gazteek hartutako erabakiarekin, eta baita pandemiaren ondorioz bizi behar izan duten kolpe, atsekabe, gabezi eta ezin guztiei aurre eginez demostratu duten izaera eta eskuzabaltasunarekin. Azken finean, proiektuari itxiera eman diote, baina ez nolana hokoa; Gerratik edo gatazketatik ihesi dauden pertsonen lagunduz. Beraz ... Zorionak, neskak! Merezi izan du!

HAUR ETA GAZTETXOEN PROIEKTUAK ARRAKASTAZ AMAITUTA, UDALEKUEN AZKEN TXANPAN

Txipistin, jatorri anitzeko oñatiarren programa eta Txaloka ludotekak, urrian ateak ireki genituen. Garaian garaiko dekretuetara egokitu, protokoloak gauzatu, asko hausnartu eta indarrez batu ginen maitatzen ditugun proiektuei eta batez ere familiei merezitako zerbitzua eskaintzeko.

Ikasturte gorabeheratsua izan da, betiko erronkez at pandemia bidelagun izan dugulako aurtengoan. Momentu batzuetan egonezinak pasa ditugu, gorrian egon gara, batzuk gaixotu gara eta osatu ere bai baina erronka gainditu dugu eta nota onarekin gainera.

Gustura gaude egindako ikasturtearekin, hobetzekoak beti dauden arren, orokorrean aisialdiaz gozatu dugu, euskara ikasi eta euskaraz aritu gara, lagunak egin eta hauekin egon gara, naturaz gozatu dugu, parte izan eta hartu dugu, sortu eta birsortu behar izan dugu eta barre ere asko egin dugu. Azken finean hori baita zerbitzuetako gako garrantzitsuenetako bat ere, balioak landuz elkarrekin eta euskaraz ondo pasatzea.

Orain zer? Udalekuak!

Hauek ere ez dira antolatzeko errazak izan, berriz ere pandemiak eta batez ere berandu etorritako dekretuek muga asko jarri dizkigutelako, kopuru mugak, taldekatzeak, musukoak, jolasen moldaketak eta abar luze bat.

Iazko Zaintza Hezitzailetik esperientzia ona ateratu genuen eta aurtengoan betiko udalekuak izango ez diren arren, erdibideko espazio gozagarri bat eratzeko lanean dihardugu. Gure mimo guztiarekin gabiltza herriko etxeko txiki gehienek (ahal izan dugunak) merezitako uda hasiera igaro dezaten.

Eskerrak ikasturte osoan zehar zerbitzu ezberdinetan gurekin aritu zireten txiki, gaztetxo eta familia guztiei! Gozatu udaldia, pilak kargatu eta irailean bueltan egongo gara!





Singular Denda errekonozimendua jaso dute Iramirak eta d'Or-ek

Tokian tokiko komertzioen lehiakortasuna hobetzea da Gipuzkoako Merkatarien Federazioak eta tokian tokiko udalek sustatzen duten *Singular Dendak* egitasmoaren helburua. Horretarako, saltzaileen kompetentziak, saltokia eta erakusleihoak, eta komunikazioa hobetzeko tresnak lantzen dira, dendariekin formazio saioak eginez eta aholkularitza pertsonalizatua eskainiz. Ekainaren 15eko batzar orokorrean eman zuen jakitera merkatarien federazioak aurtengoan *Singular Denda* errekonozimendua jaso duten 25 komertzioen izenak, tartean Oñatiko bi: **Iramira** oinetako eta arropa denda, eta **d'Or** estetika.

LGTBI pertsonen aldeko adierazpena

LGTBI kolektiboaren aldeko adierazpena onartu zuen udalbatzak ekaineko osoko bilkuran, aho batez. Adierazpenetatik haratago, udalaren konpromisoa politika zehatzetan islatzeko borondatea adierazi dute udal taldeek. Ildo horretan, LGTBI pertsonen egoeraren diagnostikoa egitea eta honi erantzungo dion talka-plan bat bultzatzeko konpromisoa hartu dute, premiazkoak diren ekintzak lehenetsiz.



Arotz auzoan bisitari, ikasturtea borobiltzeko

Udal euskaltegiak antolatuta, euskara ikasten ari diren 35 lagunek parte hartu zuten ikasturte amaierako irteeran, ekainaren 3an. Euskaltegiko 23 ikasle, Auzoko programako 9 eta Berbalaguneko 3 joan ziren autobusez. Koldo Zumalde izan zuten gidari. Berak eman zizkien auzoari buruzko azalpenak, eta otamena ere izan zuten pilotalekuan. Amaitzeko, 'Arotz, mirotz, bihotz ARAOTZ' leloa duen elastiko bat zozkatu zuten bisitarien artean. Eguraldiak ez zien lagundu, baina pozik joan ziren antolatzaileei esker ona adierazita.

Izan jasangarri

#Izanjasangarri

Eguneroko bizitzan, ohitura aldaketa txikiek, gure bizitzetan aldaketa nabarmenik suposatzen ez badute ere, ingurumenean epe ertain eta luzean, aldaketa positiboak dakartzate

✉
kontsumojasangarriaonati@
tutanota.com

Kontsumo jasangarri taldea

Hileko proposamenak Uztaila



Kontsumo jasangarria gauzatzeko ekintza bat:

Etxean, inguruan kontsumitu edo dituzun animalia eta landareen jatorriari buruz gogoeta egin duzu? Bertakoak edo ingurukoak dira edo urrunetik datoz, horrek dakarren energia, ur eta kutsadura kostu guztiarekin?



Kultura jasangarriaren txokoa:

Cuentos para salvar el planeta (Anna Casals, Paolo Ferri. Edit. Destino). Haurrei zuzendutako liburu honetan haurrak eta animaliak dira protagonistak, etorkizuna beraien esku dagoela defendatuz. Beraien bidez ingurugiroarekin lotutako gai garrantzitsuenak jorratzen dituzte.



Kontsumo jasangarriari buruzko datua:

Europar bakarrik 12.000 espezie inbaditzaile daude. Horietako %10-15ak ingurumen eta biodibertsitatearentzat kalte handiak dakartza.

<https://www.google.com/amp/s/amp.elmundo.es/ciencia-y-salud/ciencia/2017/10/04/59d3ddc322601d9c318b45b9.html>



Ekimen jasangarri bat:

Kukubaso elkarteak ezagutzen duzu? Bertako basoak berreskuratzeko asmoz Debagoienean (Bergaran) sortu den lehen elkarte da. Elkarteak ezagutu, bazkide egin edo/eta kolaboratzeko deia egin dute, animatzen zara?

Udarako 7 plan

Udaleko Turismo departamentuak eskaintza berezia prestatu du uda sasoirako. Plan bereziak antolatu ditu familiei zuzenduta

HERRIGUNE HISTORIKOAN

TURISMO BULEGOA ETA SAN MIGEL ERROTA

Erreserbak: 943783453



- Egunero zabalik: 9:30-14:00/15:30-19:00
- OÑATIKO ALTXORRAK'. Sancti Spiritus Unibertsitatea eta San Migel parrokia bisitatzeko aukera, uztaileko asteburuetan eta abuztuan, egunero, 13:00etan.
- BISITA BEREZIAK: 'Oñati, muino ugariko tokiak' (uztailak 10), eta 'San Migel errota (XV. mendekoa) martxan' (abuztuak 7).
- FAMILIA GIROAN: 'San Migel errota martxan', asteazkenetan eta ostiraletan, 17:00etan.

TXOKOLATEIXIA

Erreserbak: 605763595



- Zabalik: uztaila eta abuztuaren 8ra arte, astegunetan (10:30-13:15/17:00-19:15) eta larunbatetan (10:30-13:30); abuztuaren 9tik 31ra, astegunetan (10:30-13:15) eta larunbatetan (10:30-13:30), eta

astearte eta ostegunetan (17:00-19:15).
• FAMILIA GIROAN: astearte eta ostegunetan, 17:30etan.

ARRIKRUTZEKO KOBAK ETA NATURA

ARRIKRUTZ-OÑATIKO KOBIA

Erreserbak: 943082000/arrikruz@onati.eus



- Uztailean eta abuztuan egunero zabalik (9:30-19:00). '53 Galeria' ikusteko bisita gidatuak.
- 'Espeleotxiki' eta 'Espeleoabentura' bisitak erreserbapean.
- FAMILIA GIROAN: 'Ilunpeko Altxorak' Arrikruzeko koban. Asteazkenetan eta ostiraletan (17:00). Erreserbapean.

GOMIZTEGI BASERRIA

Erreserbak: 943251000/info@gomiztegi.com



- Gazta salmenta eta baserrira bisita: artzaintzaren historia, artzain txakurren erakustaldia eta gazta dastaketa. Bisita gidatuak, erreserbapean.

POTTOKALEKU, EUSKAL ZALDIA

Erreserbak: 670274461/jelorzarza@hotmail.com



- 'BIZI POTTOKA' bisita gidatuak erreserba pean.

ARANTZAZU ETA PARKE NATURALA

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Erreserbak: 943796463 / 943718911
/infoturismo@debagoiena.eus

- Bisita gidatuak egunero, 10:30etan (euskaraz) eta 15:30etan (gazteleraz).



ARANTZAZUKO PARKETXEA

Erreserbak: 943782894
arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net

- Uztaila eta abuztuan zabalik, ostiraletik igandera (10:00-14:00).
- Bisita bereziak eta orientazio jolasak familia giroan. Informazio gehiago: www.giuzkoanatura.eus

JUANJE MARGOAK

T. 627 818 247

amaia igartua
arkitektura

IGOGAILUA ETA FATXADAN ISOLATZAILEA JARRI NAHI?
RENOVE DIRU LAGUNTZAK MARTXAN
tel: 677 31 20 57 email: amailgartua@gmail.com

TURISMOA eta EUSKARA eskutik helduta

'BERTATIK BERTARA' KANPAINAREKIN BAT EGIN DU UDALAK, OÑATI EUSKARAZ BIZI DEN HERRIA DELA ERAKUSTEKO TURISTA ETA BISITARIEI



Udaleri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) 'Bertatik Bertara' kanpainarekin bat egin du udalak, gure herriaren aberastasunetako bat euskara dela erakusteko, eta turista-bisitariak animatzeko euskaraz eta euskararekin gozatzera.

Horretarako, argazkikoa bezalako mahai-gainekoak atera dituzte herriko jatetxe-ostatueta banatzeko. Horrez gain, 'Euskara, balio erantsia' izenburua duen eskuorri bat ere banatuko zaie herriko ostalariei, gogorazteko, kartelak, menuak, eta bestelako materiala euskaraz eta doan jasotzeko aukera dutela Udaleko Euskara zerbitzuaren bitartez. Bestalde, *TicketBai* sistemara egokitu behar duten honetan, euskarazko softwarea instalatzeko gonbita egiten zaie ostalariei. Gainera, QR bat duen kartela ere jasoko dute, euskara praktikatu ahal izateko oinarrizko hiztegi baterako loturarekin.

Materiala eskuratu nahi duten herriko taberna eta ostatuek udaleko Euskara zerbitzuan edo Turismo Bulegoan eska dezakete. Bide batez, udalak herritar guztiak animatu nahi ditu turista eta bisitariari lehen hitza euskaraz egitera.

ARANTZAZU ATERPETXEA ZABALIK DA BERRIRO

Suspertu gizarteratze-enpresak kudeatuko du aurrerantzean



Covid-aren ondorioz hainbat hilabetez itxita egon ostean, ekainaren 1ean zabaldu zituen ateak Arantzazu Aterpetxeak, arduradun edo kudeatzaile berriekin. Laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonak lan munduratzeari helburu duen Suspertu SL enpresak (EDE Fundazioko kide da) hartu du bere gain aterpetxearen kudeaketa. Era honetako zerbitzu eta ostatuak kudeatzen esperientzia eta eskarmentu handia du Suspertu-k, 'Ateri' marka pean hainbat Hostel, egoitza eta aterpetxe kudeatzen baititu: Atxuri egoitza (Bilbo), Arrate aterpetxea (Eibar), Trinkete Hostel-a (Lekeitio), Olakueta Etxea (Berriz), Fadura egoitza (Getxo) kirolarientzat, Bilbo Hostel... batzuk aipatzearen. Ez dira berriak sektorean, eta ilusio handiz heldu diote Arantzazu Aterpetxeari.

Erromes, mendizale, natura-zale eta jarduerak egiteko Arantzazu bezalako ingurune lasaia behar duten elkarte eta erakundeei zerbitzua emateaz gain, ikastetxeekin ere egin nahi du lan Arantzazu Aterpetxeak. Ildo horretan, 'Mendizainak gara' izeneko hezkuntza programa prestatu du hurrengo kurtsora begira, Arantzazuko Parketxearekin batera. Eta etorkizunera begira programa berriak eskaintzeko asmoa dute, Arantzazulab laborategiarekin, Arrikruzekin eta Oñatiko beste eragile batzuekin elkarlanean.

Logelak (12 oheko 4 gela, 4 oheko 2); **Sukalde** handia erabilgarri; **Jantoki** zabala **Gosaria**; **Jolastokia**; **Doako Wifia**; **Egokitutako gunea** (behar bereziak dituzten pertsonentzat); **Eskaintza bereziak** talde, erromes eta umeentzat; **txakurrentzat** prestatutako tokiak



www.arantzazuaterpetxea.com

 **ZURICH**
M^o del Mar Urrutia Negueruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER
ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77



Eider Egaña, Sporting de Huelvaren aurkako partiduko une batean. © SD Eibar

«Amets bat bete dut debutarekin. Pozik eta oso eskertuta nago talde osoari»

«Beste urte baterako kontratua daukat, baina oraindik ez dakigu ezer datorren denboraldiari begira. Ni jarraitzeko prest nago»

Mugarria jarri du Eider Egañak



Eider Egaña Bikuñak (Oñati, 2003) mugarri inportantea jarri du Oñatiko futbolaren eta, bereziki, emakumeenaren historian, lehen mailara iritsi den aurreneko jokalaria baita. Gainera, 34 luze joan dira azken oñatiarra, Ritxi Mendiguren, 1. mailan jokatzera iritsi zenetik, eta, zorionez, eten luze horri amaiera ipini dio Eiderrek, ekainaren 19an egin baitzuen debuta gorengo mailan, Eibar taldearekin.

Aloña Mendiko harrobian hazia, orain dela bost urte iritsi zen Eibarrera, eta 18 urterekin iritsi zaio lehen mailan debuta egiteko aukera, ligako azken aurreko jardunaldian. Galdu egin zuten 1-3 Sporting de Huelva taldearen aurka, baina emaitza gutxienekoa zen, mailari eusteko helburua lortuta zeukalako Eibarrek.

Pozik?

Jakina. Amets bat betetzea izan da niretako. Emaitza gutxienekoa zen; gozatzeko eguna zen, eta saiatu naiz lasai egoten eta momentuaz ahalik eta gehien disfrutatzen. Pozik nago eta oso eskertuta talde osoari.

Eibarreko bigarren taldean ekin zenion denboraldiari. Nolatan iritsi zaizu aukera hau?

Bigarren taldearekin jokatzera, baina, tarteka, lehen taldearekin entrenatzea eta hauen dinamikan sartzea zen hasierako plana. Baina urtarrean lehen taldeko bi atezainetako bat lesionatu egin zen eta orduz geroztik lehen taldeko jokalaria izan naiz.

Eta entrenatzaileak saritu egin nahi izan du zuren lana.

Bai. Sei hilabete hauetan gogor entrenatzen

eta ikasten saiatu naiz, eta azkenean saria iritsi dela esan daiteke. Niretako ez dira samurrak izan sei hilabete hauek, ez dudalako jokatzeko aukerarik izan, baina, hala ere, pozik nago asko ikasi dudalako taldekideengandik, eta esperientzia berriak bizitzeko aukera izan dudalako; Bartzelonara, Madrilera edo Sevillara partiduak jokatzera joatea oso berezia izan da niretzat, saiatu naiz ahalik eta gehien disfrutatzen, taldeari laguntzen, eta, egia esan, ez nuke ezerगतिक aldatuko bizi izandako esperientzia horiek.

Lehen maila barrutik ezagutzeko aukera izan duzu. Zer azpimarratuko zenuke?

Gaur egun, oraindik, alde handia dago goiko lauzpabost taldeen eta besteen artean. Aurrekontu aldetik diferentzia handia dago, eta hori igarri egiten da. Dena den, goiko talde horietan ez ezik, beste ekipo askotan ere maila handia ikusi dut, eta horrek esan nahi du gauzak ondo egiten ari garela emakumezkoen futbolean. Gainera, hurrengo urtetik aurrera profesionalizatu egingo da, eta hori ere urrats garrantzitsua izango da jokalarion baldintzak hobetzeko.

Eibarrentzat lehenengo urtea izan da lehen mailan, eta arazo handi barik eutsi dio kate-



18

URTEREKin EGIn
DU DEBUTA LEHEN
MAILAN EIBARREKin



KARMELO LAZKOZ

Lehen mailan jokatu zuen atezain oñatiarra

>> Lehenago ere izan zuen Oñatik atezain bat lehen mailan. Lakuntzakoa (Nafarroa) sortzez, 9 urterekin iritsi zen Oñatira Carmelo Lazkoz Andueza (1941-2013), eta 16 urterekin Osasunarekin jokatzen hasi zen. Estatu mailako txapelkun geratu ziren jubencil mailan, eta, gero, 1960-61 denboraldian lehen mailara igo zen talde nafarrarekin. Gorritxoekin aritu zen urtebetez, eta hurrengo denboraldian (1962-63) Zaragozak fitxatu zuen. Ez zuen askorik jokatu han, baina Europan jokatzeraz (orduko Ferietako Kopa) iritsi zen, besteak beste Roma taldearen aurka.

goriari. Zein izan da gakoa?

Lehenengo itzulia oso ona egin genuen; aurreneko zortzietan sailkatu eta Erreginaren Kopa jokatzeetik partidu bakarrera geratu ginen. Halakoetan, bigarren itzulian pittin bat erlaxatzeko arriskua egoten da, eta uste dut hori gertatu zaigula, baina hiru jardunaldiren faltan lortu genuen helburua eta pozik gaude.

Bertan jarraituko al duzu datorren urtean?

Beste urte baterako kontratua daukat, baina oraindik ez dakigu ezer. Ni prest nago jarraitzeko. Badakit zaila izango dela jokatzea, atezain postuan zailagoa izaten delako aldaketa egitea, baina jokalaria guztion helburua da lehen mailan edo ahalik eta goren jokatzea, eta uste dut lehen taldeko jokalaria izanda, gero eta gertuago egongo naizela helburutik.

Norekin gogoratu zinen debut egunean?

Gertuko taldekideekin, azken aldian denbora asko igarotzen dugulako elkarrekin (entrenoa, bidaiak...), baina, batez ere, gurasoekin, azken urte hauetan makina bat joan-etorri egin behar izan dituztelako Eibarrera, nik entrenatu ahal izateko, eta une txar edo zailtan ere hortxe egoten direlako beti.

Plazaz Plaza txapelketako partidua jokatuko da Oñatin uztailaren 10ean

'ADOS PILOTA' EMAKUMEZKO PILOTARI PROFESIONALEN ELKARTEAK ANTOLATUTAKO TXAPELKETA DA



Uxue Osés ariko da **Plazaz Plaza** txapelketa jokatzen. Gainera, Madalen Etxegararekin batera **Emakume Master Cup** txapelketako finalerdietan sartu dira, eta ETBren **Plazandreak** txapelketan ere ari dira

Sortu berri den 'Ados Pilota' emakumezko pilotari profesionalen elkarteak antolatutako 'Plazaz Plaza' txapelketako partidua jokatuko da uztailaren 10ean Oñatiko plazako frontoian (euria bada, kiroldegian) arratsaldeko 19:00etan, eta Uxue Osés oñatiarra ariko da bertan, Amaia Aldarekin bikotea osatuz. Txapelketako lehen partidua irabazi egin zuten, eta bigarrena irabaziz gero, urrats handia emango dute finalerdietan sartzeko. Etxeko partidua jokatzeke irrikaz dagoela esan digu Uxuek, eta maila handiko txapelketa bada ere, ez du baztertzeko ustekabea ematea. Pilotazaleen animoak inportanteak izango dira.

'EMAKUMEEN MASTER CUP' ETA 'PLAZANDREAK'

Emakumeen Master Cup-Nafarroako Foru Komunitatea txapelketari dagokionez, Madalen Etxegarai eta Uxue Osés oñatiarrak finalerdietan sartu dira, Gazte mailako pilota mistoko modalitatean. Ekainaren 29an zuten final aurreko partidua, txapelketako ustekabea izaten ari den Andrea Capellán (Miguel Capellán profesional ohiaren alaba) eta Ibone Salinasen aurka. Irabaziz gero, uztailaren 3an jokatuko dute finala Iruñeko Navarra Arena pilotalekuan. Gogoratu, Madalenek eta Uxuek txapela irabazi zutela I. Master Cup txapelketan, 2019an, baina orduko hartan pilota goxurarekin. Gogoratu, bestalde, ETBK antolatzen duen 'Plazandreak' txapelketan ere jokatzen ari direla Madalen eta Uxue, talde ezberdinetan, eta astelehen gauetan ikus ditzakegula telebistan.

TXIRRINDULARI LASTERKETAK OÑATIN

Uztailaren 4an (16:30) kadete mailako txirriindularientzako 34. Olakua Proba (63 km.) jokatuko da, eta **uztailaren 10ean** (16:30) Junior mailako txirriindularientzako 51. Arantzazuko Igoera (70 km.) jokatuko da.

CASAS ETA EROSTARBE PODIUMEAN. Danel Casais (AMPO) bigarren sailkatu ekainaren 15ean jokatutako Junior mailako Gipuzkoako erlojupeko txapelketan, Haimar Etxeberria (Buruntzazpi) irabazlearengandik 28 segundora. Bestalde, Aimar Erostarbe (Ulma-Aloña Mendi) hirugarren sailkatu zen ekainaren 12an jokatutako Idiazabal Sarian.

ANTZERKIA, TRANSFORMAZIO TRESNA GISA

La Casa Amarilla kultur elkarteak zuzentzen du Ilargi Zabaletak. Artearen bidez pertsonen transformazioa bilatzen duen elkarteak da.

Madrilen bizi da Ilargi Zabaleta (Oñati, 1997) aktore ikasketak egitera joan zenetik. Duela bi urte gure artean ikusi ahal izan genuen, *Residui Teatro*-k Oñatin egin zuen egonaldi artistikoaren baitan. Eta bi urte beranduago, orduko energia berarekin (edo gehiagorekin) jarraitzen duela egiaztatu ahal izan dugu, lanean, ikasten (aktore formazioa ez da sekula amaitzen) eta proiektu berriak sortzen. *La Casa Amarilla* izeneko kultur elkarteko burua da egun, eta abuztuaren antolatuko duten *Nomadance Summer Camp* jaialdiari azken ukituak ematen harrapatu dugu.

Antzerkia, dantza eta beste arte diziplina batzuekin lotutako topaketak, sormen-laboreak, formazioak eta aktibitateak an-

tolatzen dituen elkarteak da *La Casa Amarilla*. "Azken batean sormenean ipintzen dugu fokua" azaldu digu Ilargik; "eta sormenaren bidez nolabaiteko transformazioa bilatzen dugu; hau da, jendeak erremintak lortzea nahi dugu, bere eguneroko bizitzan zoriotsuago izateko. Garrantzi handia ematen diogu elkarbizitzari eta errespetuari, bai gure artean eta baita naturarekiko ere. Artearen bidez giza harremanak eraldatzea helburu duen egitasmoa da".

'NOMADANCE' TOPAKETA ABUZTUAN

Beste hainbat ekitaldiren artean *Nomadance* izeneko topaketak antolatzen ditu Ilargik. Urtean lau izaten dira, urtaro bakoi-



"Norbere burua ezagutzeko eta gure haurra berreskuratzeko bide bezala ikusten dut antzerkia; zoriotsuago izateko jolas, jendearekin harremantzeko zubi, ene eguneroko ogi"

ILARGI ZABAleta

AKTOREA


TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



'NOMADANCE' TOPAKETA

Abuztuan antolatuko dugu Nomadance Summer Camp topaketa. Sormena landuz, pertsonalki haztea helburu duten jardunaldiak dira



'AMA' PROIEKTUA

Akelarre de Mujeres con Arte proiektua jarri dut martxan. Emakumeen arteko topaketa bat da, artearen inguruan, gure barruan dugun magia eta instintua atera nahi duena



tzeko bat. Hurrengo abuztuaren 7tik 15era izango da, Segoviako Castillo de Castilnovo gazteluan.

"Naturarekin harremanean, sormena lantzea helburu duten topaketak dira. Antzerkia, dantza, musika eta askotariko tailerrak egiten ditugu bertan, modu osasuntsuan beti ere -ez dago alkoholik, ez drogarik, ez inolako diskriminaziorik; artea eta maitasuna dira gure droga bakarrak-. Bizitzeko eta parte hartzeko aktibitateak dira, ez begira egoteko, eta ez da beharrezkoa artista bat izatea, ondo pasatzeko, esperientzia bizitzeko eta pertsonalki hazteko gogoa baizik".

"Jendeak inoiz baino gehiago eskertzen du topaketa hauetan sortzen den konexioa" azaldu digu Ilargik; "beharrezkoa den zerbait bilakatu da, ez bakarrik entretenimendu edo aisialdiko jarduera bezala; jendea asko inplikatzeko da eta izugarria da pertsona askorengatik ikusten dugun aldaketa". *Nomadance* topaketari buruzko informazio

gehiago www.casamarilla.org.

'AMA' PROIEKTUA

Akelarre de Mujeres con Arte (AMA) da Ilargik abian jarri duen beste proiektu oso pertsonal bat. "Halako zerbait sortzeko beharra sentitzen nuen" aitortzen du aktore oñatiarrak. "Belaunaldi, ibilbide eta esperientzia maila ezberdineko emakumeen arteko topaketak antolatzen ditut, artearen inguruan betiere (dantza, antzerkia, kantua, meditazioa...). Askatasun giroan, inongo muga edo beldur barik, gure barruan dugun magia eta instintua atera eta elkarrekin sortzea izaten da helburua. Bizi-esperientzia bat da, azken batean, eta, egia esan, gure artean sortzen eta sentitzen den energia oso desberdina da, oso berezia".

Sektorean diharduten emakumeen lana ezagutzera eman eta hauen presentzia areagotzea da, bide batez, AMA proiektuaren helburua. Datorren urteko urtarirlean antolatuko du hurrengo topaketa.

ILARGI ZABAILETA

AKTOREA

"Gero eta argiago daukat zein den nire bidea eta helburua: artista eta pertsona bezala egunero hobetzea"

AKTORE LANA

Saltsa askotan sartuta dabil Ilargi, bistan denez, baina aktore lana ere ez dauka baztertuta. "Antzerkia helburu batekin egitea gustatzen zait, eta, ildo horretan, *La Casa Amarilla*-ko jardueretan edo AMA proiektuan antzerkiari baliatzen naiz jendearekin harremanetzeko, jolasteko eta zoriontasuna emateko, bai beraiei eta baita nire buruari ere".

Baina aktore gisa ere bidea urratzen jarraitzen du Ilargik. "Formazio ikastaroak egiteaz gain, ikuskizunak sortzen eta antzezten ere ari naiz; laburmetrai eta web-serie ezberdinetan ere parte hartu izan dut, baina, ikus-entzunezkoan arloa pittin bat apartatuta eduki dut, eta oraintxe nabil representante bila arlo horretan muturra sartzeko gogoz, berdin zinean edo telebistan ere. Egia esateko, oso pozik nago; asko ikasi dut azken urte honetan, eta gero eta argiago daukat zein den nire bidea eta helburua: artista eta pertsona bezala egunero hobetzea". ■

Ipuinak nahierara

Idaztea da Ilargiren pasio sekretuetako bat (orain arte), eta zaletasun horri tiraka *Te cuento tus cuentos* egitasmoa jarri zuen abian iaz. "Izugarri gustatzen zait idaztea. Egunero idazten dut zerbait, eta iaz, Covid-ak eragindako koarentenan, bereziki, asko idatzi nuen, eta ideia bat eduki nuen: jendearentzat idaztea testu pertsonalizatuak. Emailaz (te.cuento.tus.cuentos@gmail.com) bidaltzen dizkirate istorioan agertu beharreko elementuak (pertsonaiak, objektuak, ametsak, irudiak...) eta nik testu bihurtzen ditut; izan daiteke ipuina, gutuna, monologoa, antzerkia... Oso harrera ona izan du eta oso pozik nago". (<https://tecountotus cuentos.blogspot.com>) ■




oñabike

oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK



Bixaotan

Zelaietan belarrak nola ateratu du burua dantzariak: gogor, tente eta eder. Ganaduak Aloñako belardia nola espero zuen oñatiarrak kaskaineta hotsa. Ez gara egon alperrik itxaroten. Gozatu ederra hartu genuen guztiok ere. Korpus jaien hilabete berean entzun ahal izan dugu, baita ere, urteurrenerako musikagile lantalde batek argitaratu duen proposamena. Argitaratu dute aipatu kantua, gainera, bideo eder batekin: bertan ikus daitezke grabaketaren nondik norakoak.



Bete-beteko hilabetearen ondoren, berriz, Aloñako artaldeak bixaotan legez da dantzaria: aseta eta lasai, gerizpean, lo. Plazetatik aldenduko gara aste batzuetarako. Aprobetxatuko dugu atsedean hartzeko eta indarberritzeko. Iduri luke, hori esanda, amaitu dugula urteurrenaren ospakizunekin. Argi ibili, baina; ez da horrela.

Ospakizuna letra larriz idazteko unea iritsiko da herriko jaietan. Izan ere, urteurrenaren azken jaia eskaini eta ospatuko dugu irailean. Jakina, dantza izango dugu erdigunean, baina komunitatean sortutako ikuskizuna izango da. Gustuko dugu, tarte-ka-marteka, ikuskizun arruntetan gurekin plazaratzen ez diren kolektiboekin bat egin eta emankizun amankomunak eskaintzea. Helburua da jai handi bat ospatzea.

Irakurle, honezkero, etorriko zitzaizkizun herriko hainbat talde edo kolektiboren izenak gogora. Eta irudikatzen hasita egongo zara, agian, zer antolatuko ote duen oraingoan dantza taldeak. Momentuz, baina, zure burutazioetan utziko dugu kontua. Komeni izaten da, diotenez, ezustekoak gordeta izatea. Hortaz, goxoki horrekin utziko zaitugu.

Xehetasunak emateko goiz den arren, balio beza gutun honek oñatiarrari irrika sortzeko eta jaiko parte-hartzaileei indarra helarazteko. 50. urteurrenak merezi du ahalegina, eta orain arteko lankidetzaz antolatutako ospakizun ederrak borobiltzea besterik ez da falta. Azken txanpa da gogorrena beti, baina baita ederrena ere.

Gora Oñatz!

Iñigo Murgiondo Agirre
Oñatz Dantza taldeko komunikazio taldea

Zuntza 600 Mb | Mugikorra 7 GB

Simetrikoko + Dei mugagabeak

IRAUNKORTASUNIK GABE

BETIRAKO

42 € HILEAN BEZA barne

2. etxebizitza

Zuntza 600 Mb + finkoa

19 €

BANATZAILE BAIMENDUA

KONTRATATU ZURE GUUK ZUNTZA LIZKER INFORMATIKA DENDAN

Atzeko Kalea, 32, 20560 Oñati
943 09 06 00

guuk

ZUNTZA MUGIKORRA TB

BEZa barne. Erabilera 2020/11/30ra arte egongo da indarran Euzkadin eta Nafarroan. Linea osagarriak edo 1GB-ko doako Guuk tarifa: "Zuntza + Mugikorra" eskaintza hautatu bada, linea osagarriak "Mugikorra Bakarrik" tarifa linea osagarriak irango dituzte, GB eta destarako minutu kopuru bereak. 1GB-ko doako Guuk tariloren kasuan, prezio berria 6,96€/hil izango da. "Zuntza + Mugikorra" pakete bakoitzeko linea mugikorren gehienezko kopurua 4 izango da. Linea nagusia kontuz hartu gabe. "Zuntza + Mugikorra" eskaintzak ez du iraunkortasunik edo zigorrik izango. "Mugikorra Bakarrik" kontratua: rinko eta mugikor nazionalerako dei mugagabeak, 7GB eta 40MB rinkin. Baga hori gainditzean, abiadura 16 Kb/s-ia jaitziko da. Nahi duzuenan eman diezakezue baja zerbitzuari, baina bidaratzalea 30 eguneko epean itzul beharko duzu; bestela, 1214-ko zigor bat ordaindu beharko duzu (BEZa barne). Kontsultatu gureko baldietzak heinean: www.guuk.es

'Kaleak bizirik'

Potx eta Lotx pailazoan disko berria kalean da



Potx, Lotx, Izaskun eta Jabisound pailazoak, Txinparta taldeko kideekin diskoaren aurkezpenean

Azkenaldian triste sumatu dituzten herriko kaleak alaitu eta girotzeko asmoz 'Kaleak bizirik' izeneko disko berria, hirugarrena, atera dute Potx eta Lotx pailazoek. Hamar kanta berri jaso dituzte bertan, estilo ezberdinekoak, baina dantzatzeko eta primeran pasatzeko abestiak denak ere.

Xabi Yaniz (gitarra) eta Oriol Floresen (bateria) laguntza izan dute musika arloan, eta testuak osatzeko Txinparta Bertso Eskolako ikasle-irakasleena, herriko kultur eragile eta sortzaileen arteko elkarlana eta sinergiak sustatuz.

Bi bideklip ere egin dituzte *Txunpa Txun* eta *Pilota berria* abestiekin. Eta diskoaren izenburu bera duen ikuskizuna ere prest dutela aurreratu dute Potx eta Lotx pailazoek. Irailean estreinatuko dute Bilboko Campos Eliseos antzokian. Bien bitartean, uda partean *Etxean* ikuskizuna eramango dute Amoroto, Ataun, Lizarra, Getaria eta Zarautzera, besteak beste.

'Kaleak bizirik' diskoa <https://potxetalotx.eus> webgunean eskura daiteke 12 eurotan.

► SAN MIGEL ETA ERROSARIXO JAIXAK

Haurren danborrada eta artzain txakur txapelketa egingo dira aurten. Txosna gunea ere egongo da.

Hori da, behintzat, ekainaren 23an egin zen batzar irekian esandakoetatik atera daitezkeen ondorioak. Haurren danborrada geldian eta aforoa mugatutako gune batean egin beharko da, egun indarrean dauden osasun neurrietara egokitzeko. Zehaztu gabe daude eguna eta lekua, baina antolatzaileek ekitaldi hau berreskuratzeko asmoa azaldu zuten, iazko etenaren ostean. Nagusien danborrada, aldiz, bertan behera geratuko litzateke bigarren urtez.

Artzain txakur txapelketa ere egingo dela ematen du. Antolatzaileak prest daude, baina, agian, formatua aldatu beharko dute aurten, Oñatira herrialde ezberdinetako txapeldunak etortzen direlako, eta oraindik ez dago jakiterik txapelketa horiek jokatu diren ala ez.

OÑATZEN JAIALDIA

Oñatz dantza taldeak 50. urteurreneko ekitaldi nagusia egiteko asmoa azaldu du, eta txosna batzordeak ere txosnagunea muntatzeko asmoa adierazi du, aforo mugarekin eta dekretuak ezartzen dituen gainerako neurrietara egokituta.

Udalari dagokionez, iaz bezala karpa handi bat ipiniko du kultur ekitaldiatarako, Jaurlaritzak ezartzen dituen osasun neurriak bermatzeko. Iazkoa baino karpa handiagoa jartzeko asmoa dute, eta litekeena da, gainera, karpa Olaiturrin ipintzea, plaza ondoko jolaslekua barrakentzako gorde eta, modu horretan, garai zailak bizitzen ari den ferrialarien sektoreari laguntzeko, adierazi zuen Iñaki Olalde, udaleko Kultura batzordeburuak. Baina erabaki gabe dago oraindik.

Herri Eguneko ekitaldi jendetsuak (ganadu feria, sagardo dastaketa, talo taberna...) aurten ere ez dira egingo, baina litekeena da gazta lehiaketa eta beste ekitaldiren bat antolatzea. Eta haur zein gaztetxoentzako jolas parkea antolatzea ere ez da baztertzen. Udalak 200.000 euro inguruko aurrekontua du jaiak antolatzeko, eta datozen egunetan ekingo dio egitaraua osatzeari.



Kultur ekitaldiatarako karpa bat ipiniko du aurten ere Udalak

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



MUSIKA

UZTAILAK 7 / 19:00

MAITE LARBURUren KONTZERTUA



Hernaniko musikari polifazetikoak bere azken diskoa (Hezurren azpian) aurkeztuko du. Musika Bulegoaren 2020ko saria eta musika independentearen MIN sarietan finalista izan zen. Udalaren ESKU-LTU-RA egitarauaren baitan. [Lazarraga lorategia](#).

UZTAILAK 18 / 14:00

'URMUGA' KONTZERTUA

ALOS QUARTET



Euskal Herria zeharkatuz, mendia eta musika uztartzen dituen Urmuga ibilaldia Urbiara iritsiko da eta bertan kontzertua egongo da, Xabier Zeberioek gidatzen duen Alos Quartet hari laukotearen eskutik. [Urbian](#).

UZTAILAK 18 / 14:00

'URMUGA' KONTZERTUA



Aurtengo 'Urmuga' mendi zeharkaldiaren baitan egingo den kontzertu nagusietako bat. *Et Incarnatus* orkestrarekin batera Alex Sardui, Pett, Maider Zabalegi eta Jurgi Ekizak abestuko dute. Udalaren ESKU-LTU-RA egitarauaren baitan. [Plazako pilotalekua](#).

UZTAILAK 21 / 19:00

NOA ELVIS



Noa Egigurenek gidatzen duen *Noa Elvis & The Wooden Hearts* talde gipuzkoarrak Elvis Presley zenaren kanta ezagunenak bertsionatuko ditu. Udalaren ESKU-LTU-RA egitarauaren baitan. [Lazarraga lorategia](#).

UZTAILAK 24 / 19:00



MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Iñazio Ibarrodok zuzentzen duen musika bandaren kontzertua. [Lazarraga lorategian](#).

ABUZTUAK 20 /

'CELTIC BEETHOVEN'

Donostiako Musika Hamabostaldiaren baitan. [Arantzazuko santutegian](#).

IKUSKIZUNA

IRAILAK 5 / 19:00

ZIRKO IKUSKIZUNA



Oscar Páez eta Ariñe Azkuek osatzen duten Zirko Txosko konpainia euskalgaliarrak *Indartsuak* ikuskizuna eskainiko du. Clwn-a eta akrobaziak uztartzen dituen ikuskizuna da. Udalaren ESKU-LTU-RA egitarauaren baitan. [Errementari plaza](#)



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserniko agia,
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

BIZI MITOLOGIA

Euskal Herriko mito eta ipuin zaharrak

IPUIN KONTAKETA
UZTAILAK 10



Ipuin kontaketa saio berezia egongo da uztailaren 10ean Gandiaga Topagunean, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak antolatuta.

Jentilbaratza kultur elkarteko Maitane Aizpurua 'Marimunduko' atandarra izango da kontalaria, eta aukera paregabea izango da Jose Migel Barandiaran-ek jasotako kondaira mitologikoak ezagutu eta giro goxo eta magiko batean arratsaldea familia giroan igarotzeko. Bi emanaldi izango dira, 17:00etan eta 18:30etan. Prezioa, 4€. Aurrez erreserba egitea nahitaezkoa da: 943782894 / 699 33 51 83 / arantzazu@gipuzkoanatura.eus

LIBURUTEGIA



Hileko gomendioa

Udako *Biblioporrak* gida argitaratu dute eskualdeko, Aramaioako eta Legazpiko udal liburutegiek, adinka sailkatutako liburu, CD eta DVD gomendagarrien zerrendarekin. Etxe guztietara banatu da gida, baina udal liburutegian eta www.onati.eus webgunean ere kontsulta daiteke.

ZINEA



EZ DAGO ZINE EMANALDIRIK
HURRENGO EMANALDIK
IRAILEAN

DATUAK (*):



Amaitu berri den ikasturtean (iraila-ekaina) honako hauek izan dira pelikula ikusienak Oñatin:

HELDUAK

- Erlauntza (500)
- Akelarre (282)
- Nomadland (244)

HAURRAK

- Los Croods: una nueva era (220)
- Raya y el último dragón (181)
- Scooby (128)
- Coco, el pequeño dragón (128)



(*): Kontuan hartu behar da aforo mugak egon direla.



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ **943 78 21 16**

Uztailak 7 eta 8. Abuztuak 16, 18, 20, 21, 22, 24, 26 eta 30.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ **943 78 01 22**

Uztailak 1, 9, 10, 11, 19, 21, 23, 24, 25, 27 eta 29. Abuztuak 2, 4, 6, 7, 8, 10 eta 12.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ **943 78 05 58**

Uztailak 2, 3, 4, 12, 13, 16, 17, 18, 20, 22, 26, 28, 30 eta 31. Abuztuak 1, 3, 5, 9, 11, 13, 14 eta 15.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ **943 78 11 28**

Uztailak 5, 6, 14 eta 15. Abuztuak 17, 19, 23, 25, 27, 28, 29 eta 31.



MERKATU TXIKIA

LAN ESKAINTZA Pertsona bat behar da DBH eta Batxilergoko ikasleei eskolak emateko akademia batean. Idatzi irakasle42@gmail.com helbidera.

GARAJEA ALOKAGA Garaje plaza itxia alokatzen da Ramon Irizar kalean. Bidebarrietatik eta Atzeko Kaletik hurbil. Deitu: 619 817 072.

GARAJEA SALGAI Garaje itxia salgai Ugarkaldeko 1 zenbakian (21,42m²). Deitu: 626151019 (Julen)

ODOL ATERALDIA

UZTAILAK 9 / 16:30-20:00

Enpresagintza fakultatean

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40



(*) Itten: arrastua, pistia

>> **EZ LOTSATU, EZ KIKILDDU****Igualeko!** [gualeko!] entzuten da gehixenetan

Zein ondo gagozen adierazteko, badogu espresio bat oso geuria eta oso praktikua, esateko billurrik izan bihar eztoguna: **Igualeko!** Hauxe da bere esanguria: oso ondo edo lehen baiño askoz hobeto gagozela, edo, beste era batera esanda, oraingo egoeriak antzik be eztakola aurrekuarekin, hobia dala alegia.

Ikusi degigun ejenplo batzuk eta alkarrizketa bat:

- San Martin auzuan **igualeko bizi nauk/n**. Kale Zaharraren aldiari, han bai pakia!
- **Igualeko geratu haiz** bazkaldu eta gero!
- **Igualeko ñagok/n** ni hamar kilo flakau ondoren, antxintxika egitteko moduan!
- Operau ondoren **igualeko xabik/n!** Konparazioerik be ez!
- Aitta-amen etxian **igualeko bizi don/k** ulixa, bazkarixa egindda eta errofia plantxauta!

Bi langille barriketan:




Malen.- Zer moduz habil, ba, tailler barrixan?

*Jon.- **Igualeko ñabin!** Orainguan dana automatizauta xakonagu bai, eta etxonagu izardi haundirik etara bihar izaten.*

*Malen.- Horixe **igualeko**, orduan! Nik betiko moduan egitten xuat lan: goizetik, zortzietatik hamabittara, eta arratsaldetik, ordu bittatik seietara. Zortzi ordu eta kitto!*

*Jon.- **Jo, igualeko habil hola!** Ni, berriz, bi eta hiru errelebotan ibiltten naun jeneralian, eta betik barregarri.*

ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIAK



Emakumien moda-desfilia

O tempora, o mores! Ohiturak eta garaixak aldatu dirala, bai horixe! Guk geuk ezagutu eta bizi izan dittugu makinatxo batzuk. Gu baiño gaztiaguak diran gehixenairi arraro samarrak suertauko xate gaurko fotografia honeik. Baiña ez pentsau: **desfile honek nobedade-moduko bat ekarri otsan Oñatiko herrixari**. Alde askotatik begiratuta, gerra osteko lehenengo bi hamarkadak latzak eta illunak izan gittuan sarritan. Murrizketak eta debekuak pittintxo bat, asko ez, gutxiketan hasi ziranian 1960tik aurrera, orduko **gazterixia saiatu zan arlo barrixak jorraketan**.

Era askotako ahalegintxuak burutu ziran. Hasieran eliziaren babespeian, baimenak eskuraketako-eta, beste erreimeixorik ez eguelako. Gerora beste urtenbide eta zirrikitu batzuk be billatu zittuain gaztiak. Argazki honeittan agiri diran **irudixak nekez ikusi zeikiein urte batzuk lehenago**: neska-gazte pillatxua euren soiñekorik dotorienekin apaindduta, kapela eta guzti batzuk; **artian etzan frakarik halako desfiletan erakusten; bernak bistan, baiña belaunak ez**; dana dala, laister jantziko zittuain emakume oñatiarrak frakak eta minigonak be.

Semana de la mujer izeneko jardunaldi batzuen barruan ospatu zan moda-erakustaldi hau. Konturatuko zarai erderia zala nagusi sasue haretan, eta halaxe jarraitu eben beste puska batian be. Oñatiko parrokiixiaren **Acción católica** saillak 1965eko garagarriaren bigarren erdialdian modutu eben emakumiari eskiñittako aste horretako programia: **hitzaldixak eta pelikulak** zabaldu barri zan abadetxeko **Garoa** zinian; eta azkenik **moda-desfilia** pelotaleku ondoko **Aloña** zinian. Desfile-eguneko gorabeherak eta ibillerak antolaketara **Bilbotik etorri zan kontu horreittan ekixen emakume bat**, eta harek ekarri ei zittuan desfilatzaille batzuk luzidutako kapelak be.

Beheko fotografixan partehartzaille gehixenak agiri dira Aloña zineko eszenarixio estuan: **neska ugari eta ume banaka batzuk**. Ia zeintzuk ezaguketan dittuzuen. Goikuan, hurragotik hartuta, desfilatzaille horreittako dozenerdi, jaialdixaren akaberan erdiko pasarelatik erretiraitten. Eskumatik ezkerreara honeitxek dittuzue: **Lourdes Zurutuza, Pilar Elorza, Mari Karmen Madina, Juanita Uribetxeberria, Arantxa Balzategi** eta **Arantxa Galdos**. Desfilia asko gustau ei xaten Aloña zine-saloia topetataraiño bete euen ikusliai.

Argazkixak J. L. Plazaolak ataratakuak dira. Guri Juanita Uribetxeberriaren bittartez heldu xaku. Informaziñua, barriz, Juanita berari, Karmen Zurutuza, Amaia Igartua, Belen Zumalde eta Rexu Letamendiri zor dostegu. Milla esker guztioi!

60 URTEZ ELKAR HARTUTA



Eskaneatu QR kodea
(60 urteko konpromisoa
eta lankidetzaz)

